



Herrietako bestak
Igantzi eta Urroz

BERA → 17
Neskatoei buruz dokumentala Jon Abriek

ITUREN → 25
Joaldunen Eguna ospatuko dute

BAZTAN → 31
Pirinioko behi aziendaren lehiaketa-enkantea prest

KIROLA → 41
Euskal Herrialdeen arteko kirol txapelketa



OKILLE TAILERRA

ERREPORTAJEA → 4-5

GAITASUNAK LANTZEKO LOREAK

Pablo FEO | Leitzako Okille tailerreko arduraduna

«Euren bizitzarako interesgarriak izan litezkeen arloak lantzen saiatzen gara»

Behar bereziak dituzten 6-7 laguneko taldea bildu ohi da egunero Leitzako Okille tailerrean, gazteenak 40 urte ditu eta zaharrenak 53. Hezitzailearen laguntzarekin, terapia okupazionala egiten dute, norberaren burua zaintzeko beharrezko gaitasunak landuz eta baita herriarekin eta inguruarekin dituzten loturak ere.

2013az geroztik, birziklatutako materiala erabiliz eguzkilore dotoreak egiten dituzte. «Lehentasuna ez da etekin ekonomikoak lortzea» dio Pablok. «Prozesuaren %60 beraiek egiten dute eta beste zatia laguntzaile batek eta biok osatzen dugu. Pausoak egokitzen joan eta eguzkiloa osorik beraiek egitea da gure helburua».



Luis GARDE

ELKARRIZKETA → 3

Ezka bako ihesaldia oinarri hartuta, orduko eta gaurko gogoetak josi ditu *Ehiztariaren isilaldia* liburuan.



Olaia Bazar
OLAIA BAZAR Leitza
%10, 30€tik gora



FISIOETXEA Leitza
%10, 10 saioko bonoan



ARRATE Doneztebe
%10 Skeyndor kremetan



LEITZA KIROLAK Leitza
%5, 30€tik gora




OGI BERRI Leitza
%5 gozotegian, 25€tik gora



IRRISARRI LAND Igantzi
%50 sarreran etab.



BIXKIAK Lesaka
%10



ETXE TRESNAK S.L. Leitza
%10 koltxoietan etab.



IPARLA Elizondo
%8, 30€tik gora



ZORTZIKO Leitza
%5 gozotegian, 30€tik gora



ARGAZKIAK GOIKO Bera
%10 kopia digitalean



IPINGI Elizondo
%10, 30€tik gora



MASTER ALTZURI Lesaka
%5 etxetresnetan



KIROLAK ZELA Bera
%5 kirol artikuluetan



ALUSTIZA Doneztebe
%10, 30€tik gora



FOTO MENA Elizondo
%10 kopia digitalean



KULUNKA Leitza
%5, 30€tik gora



BORTZIRUDI Bera
%5 kopieta etab.




KATTAGORRIA Lesaka
%10 lenterian



KAPRITXO Leitza
%10, 30€tik gora



ZALDUA Donez/Eliz
%10 produktuetan




KATEA-BIKE Bera
%5 konponketetan



POTTOKI Elizondo
%5 opari txikietan



MARI CRUZ Donez/Eliz
%10, 30€tik gora



OSTARGI Bera
%5 produktu guztietan



DATUCELAY Elizondo
%10 bateria etab.



HERNANDORENA Leitza
%5, 30€tik gora



GAZTELU Leitza
%15 osagarrietan



NAFARPRES Elizondo
%10 liburu eta materialean



INTZURI Lesaka
%5 produktu guztietan



SANSIÑENA Elizondo
%5 olio aldaketan



ARIZTELA Leitza
%5, 30€tik gora



ELBETEKO POSADA Elbete
%10 kartan 30€tik gora



MAIMUR Leitza
%10 oparietan



MENDAUUR Doneztebe
%5 pentsu batzuetan



SEMPER Bera/Lesaka
%10 matrikulan



GARBI Leitza
%5, 30€tik gora



UDAL KIROLDEG. Lesaka
%40 matrikulan



OREKA Lesaka
%5 kontsultan etab.



JAIONE Doneztebe
%10, 12€tik gora



KUKUKA Doneztebe
%10 pijama etab.



EDR GUNEA Leitza
%5, 30€tik gora




URDI BERA Bera
%20 urteko matrikulan



KIMETZ Doneztebe
%5 kosmetikan etab.



OSTIZ Doneztebe
%10 oinetakoetan



JUAN J. PICABEA Doneztebe
%10, marka batzuetan




AMAIA Doneztebe
%5 kosmetikan etab.



AGARA Bera
%5 kirol artikuluetan



ELIKA Bera
%5 kontsultan



TXINELKA Lesaka
%10

Isilarazitako historiaren zati bati, isilean sufritutako saminari... ahotsa eman nahi izan dio Luis Gardek bere lehenbiziko eleberrian. Ezkabako gotorlekuko ihesaldia oinarri

hartuta, orduko eta gaurko gogoetak josi ditu *Ehiztariaren isialdia* liburuan. Egiaren bilaketaz solasten du bertan, egia historiko, pertsonal eta kolektiboaz. Izan ere, «boterea

dutenek euren errealitatearen bertsioa ezartzeko ahalmena dutela ikusita, gure memoria behar dugu, pentsatzeko ahalmen propioa, horren manipulagarri ez izateko» dio.

Luis GARDE | Donezteben bizi den idazlea

«Ezkabako gertakariak eta beraien ondorioak oraindik bizirik dira»

E. IRAOLA | DONEZTEBE

Zerk bultzatu zintuen poesiatik eleberrirako pausoa ematera?

Ezkaba mendia eta haren ingurua nire haurtzaroko gertaleku bat izan arren, heldua izan arte ez nuen bertan gertatutako ihesaldiaren eta triskantzaren berri. Historia hura kontatzeko beharra sentitu nuen, baina horrek eskatzen zuen formatoa ez zen poesiarena, narrazio luzearena baizik.

Ez da ohiko eleberria, ez kontaketa hari eta ezta forma aldetik ere.

Ez, nabari da poeta naitzela... Nobela tradizionalak aspertzen nau. Gehiago erakartzen naute mota honetako eleberriak: zati ezberdinez osatuak, hausnarketaz tartekatuak, genero diferentek jasotzen dituztenak. Liburu honetan, narrazioaz gain, badago saiakera, poesia, baita bertze liburuen aipamenak ere. **Eleberri baten baitan, bi eleberri nabari dira.**

Eleberri bakoitzak ikuspuntu eta garai bati dagokio. Bata ihesaldia gertatu zen garaian kokatzen da; hau da, 1938 urtean; bertzea gure garaian. Nire asmoa ez zen bakarrik ihesaldiaren egunei buruz idaztea; gaurko idazle edo ikertzaile baten ikuspuntua ere behar nuen, hausnarketa ba-



UTZITAKO ARGAZKIA

Pamiela etxearekin argitaratu du bere lehen eleberria Gardek.

tzuk txertatzeko. Ez nuen idatzi nahi nobela historiko bat, Ezkabako gertakariak eta beraien ondorioak oraindik bizirik dira eta. Uste dut bikoiztasun horrek aberasten duela eleberria. **Memoria, oroimena, ahazmena... dituzu hizketagai.**

Gero eta sendoago aldarrikatu behar da oroimenaren garrantzia, bai maila kolektiboan bai maila pertsonalean. Egunez egun handituz doa ikus-entzunezko komunikabideen ahalmena; gizartea aitzina joan ahal, gero eta manipulagarriagoak gara, boterea dutenek badutelako euren errealitatearen bertsioa ezartzeko ahalme-

ISILTASUNAREN PISUA
«Isiltasunak boteretsuen bidegabekeriak eta basakeriak jasan dituen jendea itotzen eta zanpatzen du. Behartutako isiltasuna jazarria izan denaren bizimodu bilakatzen da; bortizkeriaren ondorioz jazotako samina adierazi ezin duten pertsonen izaera bihurtzen da».

na. Horregatik behar dugu gure memoria, gure pentsatzeko ahalmen propioa, horren manipulagarri ez izateko.

Zenbatekoa da isiltasunaren pisua?

Isiltasunak boteretsuen bidegabekeriak eta basakeriak jasan dituen jendea itotzen eta zanpatzen du. Behartutako isiltasuna jazarria izan denaren bizimodu bilakatzeko; bortizkeriaren ondorioz jazotako samina adierazi ezin duten pertsonen izaera bihurtzen da.

Memoria kolektiboa, pertsonala eta historikoa aipatzen dituzu.

Memoriaren alde ezberdintzat jotzen ditugu hiru horiek, baina nire us-

tez, hiruak gauza bat bera ez izan arren, izan badute harreman handia hiru artean. Nobela honetan, narratzaileak memoria historikoaren lanetan bilatzen du dokumentazioa, idatzi nahi duen errelatoa atontzeko. Baina azkenean bere memoria pertsonalak talka egiten du ahozko eta idatzizko dokumentu haietan aurkitzen dituen gertakariak. Horik sortuko da bere benetako errelatoa.

Bila dabilta pertsonaia, hariei tiraka...

Bai, nor bere bilaketan murgilduta dabil. Iheslariak ez dabilta askatasunaren bila bakarrik; galdutako duintasuna ere berreskuratu nahi dute, iraganean utzitako euren bizitzaren bila. Eleberrian agertzen den idazleak ere bere bizitzaren egia batzuk bilatzen ditu. Dena da bilaketa.

Fikziotik, historiaren zati bat bildu duzu. Historikoki zein balio du eleberriak?

Nobelaren marko historikoa benetakoa da, errealia. Presondegiko erakuntzari buruzko datuak, 36ko gerra, ihesaldia bera, benetan gertatu ziren, eta kontu haiei buruzko agertzen diren datuak dokumentazio lanaren emaitza dira. Azken urteotan atera diren zenbait liburu kontsultatu nituen, baita garaiko egunkariak ere.

GIZARTEA → OKILLE TAILERRA

Gaitasunak lantzeko loreak

Leitzako Okille tailerlean
2013az geroztik eguzkiloreak
egiten ari dira

Lehenbiziko begiratuan etxea babestu edo apaintzeko loreak dirudite, baina apaingarriak baino askoz gehiago dira. Lurretik sortu beharrean, Okille tailerrekoen eskuek egin dituztelako eguzkilore hauek. Eguzkiloreen atzean dagoen proiektua ezagutu nahi izan du TTIPI-TTAPAK eta zazpi kideko familia tiki batekin egin du topo.

Eneritz IRAOLA | LEITZA

Duela 22 urte sortuzen Okille tailerra «guraso talde bat bildu zen, beharra zegoela nabaritu zutelako. Ezintasun psikikoren bat duten pertsonen toki bat, aukera bat eskaintzea zen asmoa» azaldu digu Pablo Feok, tailerreko arduradunak. «Izan ere, eskola garaian behar duten arreta eskaini ohi zaie baina behin eskola bukatuta, Okille tailerra egonen ez balitz, herrian bertan ez luke te aukerarik izanen» gaineratu du Feok.

TALDE ANITZA

Sei-zazpi laguneko taldea bildu ohi da egunero, 40 urte ditu gazteenak eta 53 zaharrenak. Egoera eta premia desberdinak dituzte «behar bereziak dituzten pertsonak dira denak, Down sindromea dute batzuk eta bestelako jatorria duten beharrak besteek. Kontua da, herri tiki izanik, denak elkarrekin daudela, ezin dira ezintasunaren arabera talde txoetan banatu. Denen beharrak asetzen saiatzen gara hemen».

EGUNEROKO LANKETA

Terapia okupazionala egiten dute bertan «euren bizitzarako interesgarriak izan litezkeen arloak lantzen saiatzen gara». Norberaren burua zaintzeko beharrezko gaitasunak lantzen dituzte eta baita herriarekin eta ingururekin dituzten loturak ere. Praktika errealak egiten dituzte «adibidez denda batera joan, gauzak behar diren bezala eskatu, behar diren bezala ordaindu, behar bezala hartu eta eraman,

EGUZKILOREEN HELBURUA

«Lehentasuna ez da etekin ekonomikoak lortzea, ahalik eta gehien saltzea. Gaur egun prozesuaren %60 egiten dute beraiek eta beste zatia laguntzaile batek eta biok osatzen dugu. Pausoak egokitzen joan eta eguzkilore oso-osorik beraiek egitea da gure helburua»

Pablo FEO
Okille tailerreko arduraduna



Birziklatutako materiala erabiliz osatzen dituzte eguzkiloreak.

gauza arrunta dirudi, baina lanketa handia du atzetik». Autonomo izatea da helburua «horregatik norberaren zaintzarekin zerikusia duten ikasgaiak, etxeko lanak egiten... arlo praktikoan, egoera errealak lantzen saiatzen gara». Labadora, sekadora, sukaldetxo bat... dituzte tailerlean horretarako. Gogoan du adibidez, hasi zirenean plastikozko txanponak era-

biltzen zituztela «baina azkenean hori jolasa da eta gehiago ikasten da benetako euroekin autobusa ordaintzeko momentuan, jolasean pasatako orduetan baino».

SAIAKERA ASKO BIDEAN

Eguzkiloreak egiten hasi aurretik, «bidean gaizki ateraren ha maika saiakera izan dira» azaldu digu. Pablo lanean hasi zenean adibidez, oso ohikoa zen

alfonbrak egitea «oso prozesu simplea erabiltzen da, oso erraz irakatsi eta ikasten dena, baina beti mugimendu berdina egiten da eta langileek ez dituzte gaitasun berriak lortzen». Alfonbra nahiko handi eta garestiak lortzen zizuten eta «armairu bat erabat alfonbrak bete genuenean konturatu ginen hori ez zela bidea. Zerbait berria probatu behar genuela».



EGOKITZAPENAK

«Beraien oztopoak leuntzea da asmoa. Besteok erraz egiten ditugun ekintzak, beraiek egin ahal izateko egokitzea, errez-tasunak jartzea»

Pablo FEO

Papera eta sobreak egiten dituzte besteak beste «papera txikitu, pulpera sortu, papera atera, sobreak osatu... prozesu osoaren %90a berriak egiten dute».

EGUZKILOREEKIN LANEAN

Paperetik eguzkiloreetarako jauzia 2013an eman zuten «oso gauza berria da, ez da beste inon ikusten horrelakorik» eta arrakasta ere halakoxea izan zuten «duela bi urte, kultur aspetean egiten den artisauek azokara 70 eguzkilore eraman genituen, 5 eurotan bakoitza eta denak saldu genituen bi ordutan. Dirua hartu eta bazkaltzera joan ginen».

LANGILEAK HELBURU

Keinu ttiki horrek ederki adierazten du, zein den beraien lehentasuna «kanpotik begiratuta, agian, badirudi, irabaziak dituen enpresa bat garela. Baina hori ez da horrela. Hemen erosleak ez, langileak daude erdigunean. Ekoizpena handitzea ez da helburua, ez zaigu inporta eguzkilore bakoitza egiten pasatzen dugun denbora. Pixkanaka beraiek egiteko zailtasunak dituzten zatiak egokitu, erreztu, sekuentziatu eta guztia haiek egin ahal izatea da gure asmoa».

Orain biltegian ez zaie deus pilatzen, «bukatu ahal bidali egiten ditugu, eskaria dugun eskaintza baino altuagoa da. Euskal herri oso-



1- Kutxatxoetan sartuta banatzen dituzte eguzkiloreak. **2-** Kartoi zaharra da erabiltzen duten material nagusia. **3-** Lana zatika banatua dute, katean lan eginez. **4-** Detalle txikiren bat erosi behar izaten duten arren, material gehiena birziklatua izaten da.

ARGAZKIAK: PABLO FEO

an 8 bat dendetan saltzen dituzte eguzkiloreak, «bakoitzean asko joita 10 eguzkilore daude. Elizondo, Otsagabia, Donostia, Iruñea, Gasteiz eta Bilbon saltzen dira».

daramatzagu urteak». Horren ondorioz, euren materialak finantzatzeko beste bide batzuk landu dituzte. Eguzkiloreak dira diru-iturrietako


bat, papera bestea eta horretaz gain, tailerrean labadora eta sekadora ere erabiltzen dituzte labanderi zerbitzua eskaintzeko. Beraz, «dirua ez

da inora joaten. Dirua gastatu egiten dugu. 100 irabazi ezker, 100 gastatzen ditugu. Baina 200 irabazi ezker ere 200 gastatuko genituzkeen».

FINANTZAZIOA


Okile tailerra sortuzen garaian, elkarte izaera hartu zuen eta horrek buruhauste bat baino gehiago eragin dizkie finantziario lortzeko orduan, «urtero urtero diru-laguntzak eskatu behar izaten ditugu, hasiera hartan ongizate departamentuarekin ez zelako akordiorik egin». Horren ondorioz, urte batean 11 elkarte sortzen badira eta denek diru-laguntza eskatzen badute beraiei diru gutxiago iritsiko litzaieke «nahiz eta gure gastua berdina izan. Bermatutako zerbitzu bat eskaini arren, partiden arabera gehiago edo gutxiago lortzen dugu. Gure egoera legala aldatu goko omen da, baina zain

EGOKITZAPENAK EGITEAREN GARRANTZIA



Pablo FEO | LEITZA

Hezitzaileen egin behar garrantzitsuenetako egokitzen egitea da «besteok erraz egiten ditugun ekintzak beraiek egin ahal izateko egokitzea, errez-tasunak jartzea». Tailerrean adibidez, «grapagailuak moldatu egin behar dira. Tope batzuk jartzen zaizkie, ziurtatzeko papera beti sartuko dela posizio berdinean. Keinu arrunta dirudi, mugimendu erraza, baina beraiei kostatu egiten zaie. Beraien oztopoak leuntzea da asmoa». Lanketa horretan, batean eta bestean irtenbideak topatzen doaz «sobreak egiten genituen guraiekin moztu genituen eta denak desberdinak, batzuk gaizki... ateratzen ziren. Deskubritu genuen bazela prensa eta trokel bat mugimendu bakarrekin sobrea egiten zuena. Zuk badakizu ze poza izan zen hori guretzako! Bukatu ziren frustrazioak». Kontuan izan behar da, «haiek sentitu egiten dutela egiten dutena. Egindako lana gaizki atera bada, zein aurpegirekin atera behar dute lanetik?». Gauzak ongi ateratzen diren espazio bat eskaini behar dietela uste du «goiz batean 14 sobre egin, gehienak diferenteak eta bakarren batzuk basurara bota behar izatea kolpe handia da beraientzat. Gure infernua da hori eta hortatik ihes egiten saiatzen gara beti». Tailerreko langileen aurpegiak dira bere ustez, egindako lanaren neurgailurik hoberenak «aurpegietan ikusten da emaitza». Denda batetik pasa eta eguzkilorea salgai ikusten badute, autostima igo egiten zaie, «euren lana besteek ikusten dute eta».



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Idatz nezakeen

U da akitzen ari den honetan azken hilabeteetako tenperaturaz idatz nezakeen. Udazke- na ailegatzear dugunean arbolek istante egi- nen duten *stripteaseaz* idatz nezakeen.

Joan berritan, udan asteburu batez gure etxean izan den Melka haur saharri buruz idatz nezake- en, eta baita bere herriak bizi duen injustiziar buruz ere.

Ikasturtea hasten ari den honetan bertze behin euskarazko hedabideek bizi dugun egoera kritikoa- az idatz nezakeen.

Kurtso politikoaren hasieran, Nafarroan aldaketa- ren harira batzuk bizi duten itxaropenaz edota ber- tze batzuren somatzen den amorr edota etsi- penaz idatz nezakeen.

Urriaren 18an Baztanen ospatuko den Nafarroa Oinezari buruz eta honen antolaketan sumatu du- dan ilusio, gogo eta beharraz idatz nezakeen.

Bihar, bizi hobe baten itxaropenean, bizia arrisku- an jarriz inolako bermerik eskaintzen ez dion txal- upa batean Europarako bidea kezka, zalantza eta era berean ilusioz hartuko duten Ibrahim, Mu- hammad edo Omarri buruz idatz nezakeen.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Kataluniako independentziaz

B atzuentzako urruneko kontua... Bertzeentzat hurbilekoa, hausnarketarokoa. Ezinezkoa (fuera autonomia eta atera zalditeria)... Bidea... Helburua... Ametsa edo ametsgaiztoa... Real Madrid eta FC Barcelonaren arteko futbol par- tiden ezintasuna (?) da arrenkura iturri batzuentzat; alabaren kezka bertzeentzat: Katalunia independi- ente bada, Port Adventurara joan gaitzake udan?

Nabarmentzekoak



Candida JAUREGI
100 urte dituen amaiurtarra

Irailaren 3an 100 urte bete zituen Argineneko Candidak eta mendea bete duen lehenbiziko amaiurtarra da. Familia eta lagun artean ospatu zuen eguna. Zorionak eta urte askoan!



Jon ABRIL
'Neskatoak' dokumentala

Gure ingurutik Ipar Eus- kal Herrira eta Frantziara neskato joan ziren emakumei buruzko dokumentala grabatzen ari da Berako kazetaria eta Donostia 2016k di- rulaguntza eman dio.



Fernando ETXEGARAI
Kontrabandisten lasterketa

Zortzigarren aldiz irabazi du Sarako Kontraban- disten lasterketa kirolari beratarak. 41 minu- tu eta 53 segundo be- har izan zituen, 2006an berak ezarri zuen erre- korretik urrun.

Atzera begira → 2005-IX-22 / LURRA 39 zk.



Jagoba Manterola Aurtizko prentsa argazkilariarekin solasean

«Prentsako argazkilarion lana errealitatea erakustea da». Horrela aipatu zion Lurra aldizkariari Jagoba Manterola argazkilaria aurtiztarrak. Gerlako argazkila- ri bezala ibili zen Iraken, Bosnian eta Palestinan, bertzeak bertze, eta 1996an itzuli zen Euskal Herrira. 10 urterekin eskatu zion lehen kamara olentzerori eta «nire lehenbiziko argazkia Aurtizko Tomasenetik pasatzen ari ziren ardi batzuei atera nien. Nire anaiak Korrika 4an lekukoa hartu zuen eta argazki hura izan zen nere lehen argazki publikatua, Ttipi-Ttapa aldizkarian». Prentsa argazkila- ritzan «aunitz ikasten da, lan bizia delako, azkartasun handikoa», zioen.

ttipi-ttapa

Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredakzioa Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola Publizitatea Usosa Vicente, Amaia Odriozola Berriemileak Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Ar- kaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irtzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urroz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxe- kolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebxa, Mattin Larralde, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2015eko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	18€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	73€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEKNA
MEZINASOIA KULTURA NAFARRA



Kolaborazioak

Demokrazia deitzen dugun hori

Juainas PAUL ARZAK

Nafarroakoa irmo mantenduko da? Zuzenean arituz, eskertzekoa den erantzukizun ikaragarria hartu zenuten eta, orain, ez duzue porrotarekin, etendurarekin bukatzerik. Adostu zenuten horiek nola gauzatu eztabaida dezakezue, beste aferetan nahitaezko ikuspuntu eta jarrera desberdinak erakutsi, eta bakoitzak berea bulkatu... Hori bai, elkartzearekin nahitaezko gobernagarritasun eta iraupena eskaini zenuen: lau taldek, lau urteko... Gurpiletan traba ugari sartzen saiatuko direla bazenekiten. Adibide ederrak ikusi ditugu. Gogoa eta ardura!

Estatu mailarako antzekorik edota modu berbera den zer bait itxoin daiteke? Elkarturik aurkeztea baztertu baita, ez dago beste biderik. Lan itzela izanen da, dudarik gabe, egoerak, ordea, ez du beste erre-mediarik uzten. Bitik bat, adostu daitezkeen arazoan konponbide inguruan elkartu edo azken urtekoei -PP/PSOE- lutzapena oparitu. Negar-garria izanen zen, beste behin!

Eremua handiagoa izateaz gain -korapilatsua goa liteke?- nahasiagoa dugu, ugariagoak gare-lako, eta dena urruti erabakitzen delako. Hau da, hurbiletik jorratu behar dugu nori eman gure

konfiantza eta ordezkaritza, arretaz jarraitu eta geroa erabaki. Horren ordez, alderdikierietan erortzeko ohi-tura dugu edo denak berdinak omen direlakoan gure arduran utz egin. Eta Europara dagokionez, zer esanik ez. Den dena areagoturik gero eta ondorio handiagoekin. Nork agintzen du eta norentzat?

Europa, mendeetan, gerrez beteriko eremu geografiko bat izan da, kontinente erdi bat, mundu gerrak piztera ailegatu den bat, hain zuzen. Hori saihesteko sortu omen zuten Europako batasuna, demokrazian oinarrituko zen elkarte ekonomikoa izanen zena»

Frankismoaren bukaera aldera gune fidagarria izanen zenaren itxura saldu ziguten. Gentozen tokitik etorriki, aisa sinetsi genuen. Eta gero? Europa geografikoan gaude, politikoan, ordea, kanporatuak izateko mehatxuez gain, nork eta norentzat agintzen du/ute? Dugu? Urrutiagotik oraindik? Hara, beste erremediorik ez dago: hurbiltasunetik urrutiraino eramanen gaituen bidea jorratu behar dugu, garbitu. Noizbehinkako boto horiek garrantzi ikaragarria izan dezakete oinarritik gailurreraino elkartuak mantentzen bagara. Nafarroatik Europako erpinera!

«Europa, mendeetan, gerrez beteriko eremu geografiko bat izan da, kontinente erdi bat, mundu gerrak piztera ailegatu den bat, hain zuzen. Hori saihesteko sortu omen zuten Europako batasuna, demokrazian oinarrituko zen elkarte ekonomikoa izanen zena»

Europako sega txapelketa Euskal Herrian

Ainara MAIA URROZ

Iragan ostiralean joan nintzen Azpeitia aldera eta igandera arte hantxe egon nintzen aleman-itzultzaile gisa borondatetsu laguntzen antolakuntzari. Izan ere, Europako txapelketa bat ez da noiznahi gertatzen Euskal Herrian, eta bertaratutako 59 segalari gizonezko eta emakumezko Euskal Herrikoak izateaz gainera, Eslobeniakoak, Hego-Tiroigoak, Alemania-koak, Suitzakoak eta Austriakoak izan ziren.

Txapelketako komunikazio hizkuntza alemana zen, euskararekin batera, eta ez zegoen beste hizkuntzarik tartean, ez gaztelaniarik, ez frantsesik, ez ingelesik. Benetan eredugarria Almitza sega elkarteko antolatzaileek egiten duten lana herrigintzan eta euskalgintzan! Euskara alemanaren pare jartzen dute, beste tarteko komunikazio hizkuntza bat hartu gabe.

Zortzi gizon eta emakume bat euskal sega-taldean, eta ni, garagardoaz ospatzen laguneren garaipena. Gustura egon nintzen hango alemaniarren artean eta be-deratzi segalari goierritarrekin, euren arteko eta lagun hartu baininduten. Aldi baterako nire bihotzeko minak ahaztu eta dantzan nahiz kantuan aritu ginen.

Kirol lehia gogorra izan

zen igandean eguzki kis-kalgarriaren azpian, baina batez ere adiskidant-zazko kirol eta kultur le-hia atsegina asteburu osoan zehar Azpeitian, parranda tarteko. Baina kirol lehia ofiziala zenez, sari banaketa ere egon zen, eta 2015eko Euro-pako sega txapeldunak gizonezkoetan Hego-Ti-rol izan zen; emaku-mezkoetan, berriz, Sui-tza. Aurtengoan ere Eus-kal Herriak ez du iraba-zi, baina antolaketa pa-regabea izan da denok ongi egon gintezen.

Erabaki dut arnasa sakon hartzea eta une hau bizi-tzea: ilunsentiko izarren distiratik egunsentiko zeruko urraduraraino eguzkiak egiten dit keinu. Lur jota ego-tetik malkoak barrurantz isurtzen ikasi nuen aspaldi, eta orain berriro irribarre leun egiten dut kanpora, zo-rioritsu eta maitemindurik, maitasunez beterik. Ez dut gehiago barkamena eskatuko maitatzeagatik; barka nazatela min eman diedan guztiek, nik ere barkatu di-tut aspaldi min eman nautenak. Gure esker onezko segekin etxeratu ginen nekaturik baina pozik, eta jo-an garenok badakigu eman dugula daukagun onena, ezagutuz gure onena eta hori da azken batean mere-zi duena.

Orain, zorroztarria aterako dut, belar txarrak ebaki eta zorioritsu izango naiz bizitzan eta maitasunean.

«Txapelketako komunikazio hizkuntza alemana zen, euskararekin batera, eta ez zegoen beste hizkuntzarik tartean, ez gaztelaniarik, ez frantsesik, ez ingelesik. Benetan eredugarria Almitza sega elkarteko antolatzaileek egin duten lana herrigintzan eta euskalgintzan»

Irakurleak mintzo

Esne kuotak
desagertzearekin
batera

Jon USETXI

Azken aldian gertatutakoaren autokritika egin beharra daukagu.

Kanpoko ekonomia, ekonomia finantzieroko edo ekonomia produktibistak, izan duen eraginak ez du lagundu gure herria/baserria sustatzen, haren eraginez baserriak bertan beherra geratu dira. Gure esku ere galdu dira, behitegi eta baserriak. Administrazioak gainbehera luzatu eta leundu du, baina ezin du norabidea markatu edo zuzendu.

Kuotak desagertzea aukera ona da: merkaturia behitegi handiak indartzen ari da: 10.000tik gorako abereekin, guztiz mekanizatuta; esnearen prezioak 30 urtetan ez dira aldatu... honen aurrean ez dugu zereginik. Merkaturatik at, gure produktzio herriaren beharrik auzoteko antolatu behar dugu, ekologikoaren (gure arbasoen lan egiten zekiten era) aldeko errekonbentsioan.

Lan egiten badakigu, eta ongi. Behiek inoiz ere ez dute kuotei buruz ezer ulertu. Naturak bere eritimoak markatzea, ez da muga, laguntza baizik. Gizaldiz-gizaldiz nekazaritzan aritu gara, jakinduria jasota eta mundu-

an eredu garelarik, hainbat alorretan.

Etorkizunera begira: lehendik ere nekazaritzak egoera larriak pasatu ditu; orai, garai berrietara moldatu ezinik, moldatu behar al dugu gure herria edo garai berriak gure erara edo eskura moldatu, ongi egiten dakiguna egiten?

Nora jo nahi dugu? gazteei ateak ireki, ez dugu ustiaketa zentzugabe honekin jarraitu nahi; helduek badakigu lanean egiten eta aitatzien jakinduriak jantzi behar dugu.

Ezin diogu naturari, lurriari, animalia eta landareei mugarik gabeko hazkundea eskatu, gainera, merkatuak ez die bere hazkundearen esnegileei bere parte ordaindu (merkatuak hazi diren bezala ez dizkiote esnegileei ordainak igo).

Elkartu beharra daukagu baserria-herriak-hiria. Hirietan bertako produktuak baloratzen dituen jende asko dago, elikagai onak eskatzen ditu eta herriaren garrantzia ulertu du: bertakoa-hurbileko-garbia, lurriaren ahalmena bortxatu gabe, zelaie-tatik etxera zuzen, gutxi eneko bitartekariekin,... Baserriek ere nolabaiteko elkarteak sortu behar dute egoera aztertu eta arazoei aurre egiteko.

Herrietako jendea ingurunea/amalurra/ne-

kazaritza/bizia/elikadura zaintzeko egiten dugun lanagatik ordaina behar dugula konturatu gara, bizi duina eramateko. Nekazariok gure lana eskertuko duen jendearekin zuzenean egin behar dugu tratatu.

Proposamena, garatu beharrekoa, hau da:

-Lortuko genuke: duintasunez bizitzea; elikagai osasungarriak; merkatuen menpe ez egotea eta bere xantaiak ez jasatea; burokrazia txikitzea; naturaren garatzea,...

-Beharko genuke: etekinak ditugun baliabideen arabera antolatzeta; input eta gastuak gutxienekoak izatea; arbasoen eta manejo naturalaren inguruko ezagupenak berreskuratu eta garatu; ekologikoa kontsumitu nahi dutenen konpromezu sendoa, ekoizle, elaboratzaile eta kontsumitzaileen arteko elkarlana garatu, topaguneak aurkitu,...

Gutxi gora behera, nekazaritza ekologikora errekonbentsioa litzateke. Hurbilekoari laguntza eskatzea ere, bada bidea errazteko aukera paregabea.

Oso erraza da: guk norabidea markatzea, herri bezala aritzea, gu geuk etorkizuna geure neurria landu, guztia gure alde dugu, ongi zainduta beti hobera egiten du lurra. Lan erraza eta

nekeza dugu aurrean, nekazariok.

Eskerrak
AgerratikTxaro ZUBIETA (Agerrako
Besta Batzordea)

Agerra auzotik eskerrak eman nahi dizkizuegu bestatara hurbildu zareten guztioi eta bereziki modu batera edo bestera laguntza eman diguzuenoi.

Lan handia egiten dugu besta hauek antolatzeke eta ezinezkoa da besta auzotar hauek zuek denon laguntzarik gabe aurrera ateratzea, beraz,

Gaizki eginak barkatu eta ongi eginak kontuan hartu!!!

Milesker berriro ere eta hurrengo urterarte!!!

20. urtetebetetze
zoragarri eta
gogoangarriaItziar MITXELENA (Arantzako
Gazte Asanblada)

Ailetu zen ailetu hainbertze denboraz espe-ro izan dugun egun handia, baita pasatu ere, nahi baino abudoago seguraski.

Antolakuntzaren aldetik ez zaigu eskerrak ematea bertzerik gelditzen. Hasteko eskerrak Arantzako Udala eta bertako langileei emanda-ko laguntza, baliabide

eta erraztasun guzientzat, eta eskerrak Ekaitza Elkarte eta Arantzako ostatu.

Eskerrak egun honean funtsezkoak diren musikariei. 1995eko kartel berdina errepikatuz denboran 20 urte gibelera egin genuen, eta hori, ez dugu inolaz ere atzunduko. Oroitzen garen aldiro ezin ukatu emozio andana batek gorputza astintzen digunik. Eskerrak aunitz Eonian elektrotzaranga, Sutagar, EH Sukarra, DJ Elepunto eta, batez ere, Baldin Badari. 19 urteren ondotik zuek berriz ere Arantzako taula gainera igotzea ohore handia da guretzat, bihotzez eskerrak aunitz!

Eskerrak baita Berria, Xorroxin Irratia, Euskal Herria Irratia, Gaztea, Ttipi-Ttapa, EITB, Euskadi Irratia eta Gaztezulo hedabideei ere Arantzako Rock 2015 Euskal Herriko xokoetara eta haratago ere zabaltzeagatik. Eskerrak zuri, Arantzako hurbildu zinelako eta egun berezi honen parte izan zinelako.

Eta bereziki, eskerrak Arantzari eta arantzarguziei, herria auzolanean hain gogotsu ikustea zoragarria izan zen.

Eskerrak aunitz eta heldu den urte arte!

Arantzarrok ta Arantzako Rock, aunitz urte ta hola segi bertze hainbertzez!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.eus

Posta: **Koskontako bidea, 07-1 31770 LESAKA**

Tel.: **(0034) 948635458** Faxa: **(0034) 948635457**



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

Prentsatik bildutakoak



«Asko tematzen da Mikel Orbañanos entrenatzailea arraun egiteko moduan. Oso luze egiten dugu eta ia zetik honat nabari da hobekuntza».

«Aurten, ontzia azkar joaten da erritmo apa-lagoetan ere, minutuko 35 pala kolpetan esaterako, eta horrek aukera ematen digu indarrak gordez joateko estropaden amaie-ran indartsu azaltze-ko».

Iker MARIZKURRENA
Sunbillako arraunlaria
BERRIA 2015.08.14

«Gutxi behar da Ligako estropada batean hamargarren egiteko, eta guri ere gerta dakiguke hori. Portugaleteko azken estropada arte topera joan behar dugu»

«Ongi moldatzen da taldea edozertara. Ez pentsa, baina, sekula-koak garenik edo gure taldean halakorik denik. Beste edozein taldean bada Hondarribian bezala-ko arraunlari onik».

Agoitz IRAZOKI
Lesakako arraunlaria
BERRIA 2015.08.14

11 galdera labur

Nor da Raul Castro?

Kirola gustatzen zaion 34 urteko gaztea.

Zein afizio dituzu?

Aizkora, bizikleta, mendia, igeri-keta... oro har, kirola dut afizio nagusi.

Noiz hasi zinen aizkora?

Duela zortzi urte hasi nintzen, bai-na momentuz alde batera utzi dut. Plazetan ongi pasa arren, txapelketetan nerbioek jokatzen zuten eta hainbertze entrenatu ondotik, etxean plazan baino gehiago egi-ten nuela ikusita... ez zuen mere-zi! Hala ere, ez dut erranen orain-dik plazaren batean ikusiko ez nau-zenik....

Nondik heldu zaizu afizio hori?

Ttiki-ttikitatik herriko plazetan iku-si dudan kirola izan da eta beti-danik izan dut ikasteko ilusioa.

Norekin ariko zinake gustora aizkora?

Nire lagun eta irakasle izan den Jexux Olaizolarekin (Agite), Arria eta Aierberekin.

Aizkora apusturako plaza bat...

Ez dut uste berriz apusturik egi-nen dudanik, baina aukeratzeko-tan Doneztebeko frontoia. Zonal-dean aizkorekiko afizio handia dago eta polita da sortzen den gi-roa....

Nola bateratzen dira besta eta aizkora?

Gaizki. Aizkora aritzeko besta maiz utzi behar izan dut.

Herriko bestak gainean dituzue... zein da egunik politena?

Herri bazkari eguna. Heldu zein gazte biltzen gara eta mahai in-guruan giro ederra sortzen da.

Eguneko bestazalea edo gautxoria?

Gaur egun eguneko bestaz gehia-go gozatzen dut.

Inguruko xokorik politena?

Bomozorrotzeko kaskoa.

Amets bat?

Hasi dudan etapa berrian zortea izan eta behar den maila ematea.



Raul CASTRO → Aizkolarari urroztarra

saroha[®]
gozotegia okindegia

p^o de eztegará 25 bajo
31780 berá (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
Jose Luis E. caro
Tfno/Fax: 948 630 018 Kanttonberri 12 • BERA

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 • BERA

ZALDI FERRATZAILEA

625 704 419

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANIAK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

KULTURA → IRAILAREN 20A ARTE BOZKA DAITEZKE

93 lan aurkeztu dituzte udako argazki lehiaketara

Urriaren 1ean emanen da irabazleen berri

TTIPI-TTAPA

Udako argazki lehiaketa antolatu du estreinakoz ERRAN.EUS atariak eta argazki hobena egin nahian, asko izan dira argazki kameraren gibelean jarri eta batean eta bertzean argazkiak atereaz ibili direnak. Irailaren 10ean bukatu zen lanak aurkezteko epea eta denera, 93 lan jaso dira.

Lehiaketan bi sari egonen dira: lehenbiziko saria epaimahai batek aukeratuko du. Irabazleak Isabako Txapatera apartamentuan 6 lagunentzat bi gaueko egonaldia eskuratuko du. Irabazlearen izena, urriaren 1ean jakinaraziko da Ttipi-Ttapa aldizkarian, Xorroxin irra-

tian eta ERRAN.EUS webgunean.

Bigarren sariaren irabazlea berriz, ERRAN.EUSeko erabiltzaileek aukeratuko dute. Irailaren 20ra arteko epea izanen da bozka emateko aukera eta erabiltzaile bakoitzak gehienez, hiru argazkiren aldeko botoa emanaz. Boto gehien lortzen dituen argazkiak, irabaziko du Berako Zalain jatetxean 4 lagunentzako otordua. Epaimahaiak aukeratutako argazki irabazlea eta erabiltzaileek aukeratutakoa argazki bera balitz, boto gehien jaso dituen bigarren argazkiak eskuratu luke erabiltzailearen saria.

Horretaz gain, parte-hartzaileen artean, Irri-sarri Landerako 2 sarrera bikoitz berezi zozketatuko dira (bi pertsonentzat bina sarrera).



ARGAZKIA: ERRAN.EUS

Udako argazki lehiaketara aurkeztutako erretratoetako batzuk. Bertze aunitz dituzte erran.eus webguneko erabiltzaileek aukeratzeko.

www.carneecologicanavarra.com
635 715 038

Arkumea, txahal eta moxal lote ekologikoak, zuzenean zure etxera, bitartekaririk gabe.

BEKAZALITZA
2014-2020
ERAKURTZA
EKOLOGIKOAK

Bertatik bertara bizi nahi dugulako
trigoLimpio

Garralda - Bera - Saragüeta - Aribé - Orontze

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

IGANTZIKO BESTAK 2015

Marisa ETXEBERRIA EZIOLAZA | Igantziko euskaltegiko ikaslea

«Ilusio handia egiten dit txupinazoa botatzeak, oso pozik nago»

Irailaren 19an hasiko dira Igantziko bestak eta dagoeneko erabaki da txupinazoa nork botako duen. Aurten Igantziko Euskaltegiko ikasleen txanda izango da. Marisa Etxeberriak izango du suziria botatzeko ohorea euskaltegiko kideekin batera. **«Zinegotzi batek eman zigan notizia eta hagitz ongi hartu nuen. Oso pozik nago eta ilusio handiarekin».**

Marisa ama alai eta langilea da. Euskaldun berria da eta **«7 urte»** daramatza euskara ikasten. Hagitz ongi moldatzen da.

Igantziko euskaltegia duela hiru urte sortu zen eta aurtengoa 4. ikasturtea izango da. Hasieratik izan da Marisa bertako ikaslea, **«beti ibili izan naiz euskaltegian».** Hala ere, Igantziko euskaltegia ireki baino lehen euskara klaseak jasotzen zituen baita ere. **«Hasieran Lesakan eta Beran ibili nintzen euskara ikasten eta gero Igantzin talde bat sortu zenean, niretzat hobeki».**

Nahiz eta Igantzin bizitzen hamar urte daramatzen, Marisa jaiotzez Iruñakoa da eta aipatu digu Igantziko herritar guztiek badakitela euskaraz hitz egiten **«guk, kanpotarrek, izan ezik».** Iruñian bizi zenean ez zuen euskararen beharrik sentitu, baina **«hona bizitzera etorri nintzenean ikusi nuen hemen denak euskaraz bizi direla, beraz, hemen bizitzeko euskara ikasi egin behar nuen».**

Igantziko euskaltegian talde bakarra dute eta **«astean bitan»** elkartzen dira Mentxu irakaslearekin, **«astearte eta ortzegunetan, bi orduz egun bakoitzean».** Eguneko azken orduan praktikatzen dute euskara, **«zortzietan hasi eta gaueko hamar arte».**

Bestetan, **«haurrentzako eskaintza handia egoten da»** eta gehienbat **«haurrarekin»** eta egunez pasatzen ditu beste-tako egunak. Hala ere, parrandan ateratzea ez du baztertzen. **«Gauren batean ateratzeko aukera ere hor dago, baina normalean beti egunez ateratzen naiz».** Bestak hasteko gogotsu dago Marisa eta jendea animatu nahi du Igantzira joateko: **«Bestetan hagitz giro ona egoten da, beraz, etorri aprobetxatzera!».**

«Hona bizitzera etorri nintzenean ikusi nuen hemen denak euskaraz bizi direla, beraz, hemen bizitzeko euskara ikasi egin behar nuen.»

Marisa ETXEBERRIA



Ezkerretik eskuinera: Marisa, Mentxu (irakaslea), Rakel, Joxelu eta Kristina.

Iguzkiagirre Iturbide



Ongi pasa bestak!

- Harategia
- Janaridenda

Nagusia, 61 · IGANTZI
☎ 948 637 261

Canon Bidasoa

- Multifunzioen konpontze eta salmenta.
- Ordenagailuen konpontze eta salmenta.
- Zerbitzu teknikoa. **Ongi pasa bestak!!**
- Kontsumibleak.

Santiago kalea 7, Irun info@cbc-bidasoa.es
943 631818

TALOTXA IGANTZI ERAIKUNTZAK,



Ongi pasa bestak!

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 Igantzi (Nafarroa)
608 20 21 26 · 618 90 18 10

Carlos Txoperena

mendi garbiketarak eta landaketarak
ITXITURAK



Ongi pasa
Saunigetzak!!

Tel: 948 637 477
637 466 124
LESAKA

ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11

Antigua A.T.M. S.A.

Bº Berrizaun Nº 25 · 31790 Yanci / Igantzi (Navarra) | Tfn. 948 63 74 11 | zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es

JOSE AGERRE pinturak



**PINTURA LANAK
OROKORREAN**

Kanpo eta barneko pintura
Barnizatze eta lakatzeak
Parket Flotatzailea jartzen dugu

610 221 528
BERRIZAUN

yanci
harrobiak
ONGI PASA BESTAKI!
Unanue auzoa, 18 · 31790 · Igantzi
T. 948 63 72 88 · F. 948 63 75 89
lcarrillo@hyanci.com · www.hyanci.com

 **Jose Canabal**
Instalazio elektrikoak
orokorrean
**ARGIZTAPENA
MATXURAK · ALARMAK**
ONGI PASA BESTAK!!
T. 666 57 58 99 · 948 638 039
IGANTZI
josecanabal68@gmail.com

**UDAKO ESKAINTZA
BEREZIAK** 

2.500 FLYER A5 ↔ **143€**

5.000 FLYER A5 ↔ **165€**

KOSKONTAKO BIDEA, 07 - 1 | LESAKA | 948 635 458
kulturkari@ttipi.eus | www.kulturkari.com | www.ttipi.eus


LA VILLA
Ostatua - Jatetxea - Igantzi

ERRESERBAK
T. 948 637 290

Ongi pasa bestak!

Karrika Nagusia, 14 31790 IGANTZI



IRAILAK 19, LARUNBATA

11:00 Pintxo txapelketa eta dastaketa frontoian. Bakoitzak behar dituen osagai guztiak ekarri behar ditu eta aurkeztutako pintxoaren, 20 pintxo egin beharko ditu dastaketarako. **16:00** Plater tiroketa Ziobin. **18:30** Kankailu eta buruhaundiekin karrika buelta herrian barna, Triki-pand trikitalari taldearekin batera.



IRAILAK 20, IGANDEA

10:00 Karrika bueltan txistulari eta trikitalariekin. **10:00** Haurren herri kirol saioak. Igantzi-Basaburu eta Bera taldeen arteko proba konbinatua. **12:00** X. Gazta lehiaketa eta ardo dastaketa. **16:30** XXXV. Artzai zakur lehiaketa. **19:00** Gazta eta Opil dastaketa.



IRAILAK 25, ORTZIRALA

17:00 Mus eta partxis lehiaketa, Biltoki Ttikik antolatuta. **19:00** Pintxo potea. **20:00** Igantziko dantza taldearen emanaldia. **22:00** Elektropatxaranga.

IRAILAK 26, LARUNBATA

12:00 Altzaferoa. Ondoren kankailu eta buruhaundiekin karrikabuelta, txarangak eta Bortziritako Gaiteroek girotuta. **Segidan** Hs2 Frontoian. **18:30** Goitibeherak Piedadetik abiatuta. **Arratsaldean** Txaranga. **00:00** Tximeleta.

GORA SAN MIGELAK!
borzrud
INPRENTA - HOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamisetak / oparitzeko artikulua

IRAILAK 27, IGANDEA

10:00 Karrika buelta txistulariekin. **12:00** Toka Txapelketa Frontoian. **Bitartean** Kankailuak eta buruhaundiak karrika buelta egingen dute Bortziritako gaiteroekin. **18:00** Herri-kirolak. Euskal Herriko Koxkor Biltze Txapelketa, gizezko eta emakumezkoena, eta Nafarroako Arpana Txapelketa Mistoa. Herritarren arteko desafioa. **Ondoren** Muxikoak eta larrain dantza foru plazan. **22:00** Gabena.



IRAILAK 28, ASTELEHENA

10:00 Karrika buelta txistulariekin. **10:00** Puzgarriak, Wii eta gomak frontoian. **11:00** Pintxo poteoa txarangak alaituta. **12:00** Betizuak txarangak alaituta. **14:00** Haurren herri bazkaria zentroan. **14:00** Herri bazkaria Baratzondon Andoni Egaña eta Sustrai Colinarekin. Txaranga ere bertan izanen da. (Txartelak betiko lekuetan irailaren 25a arte).

IRAILAK 29, ASTEARTEA

10:00 Karrika bueltan ezpata-dantzari eta txistulariekin. **11:30** Meza nagusia herriko abesbatzak kantatua. **Ondotik** Bandera arbola doinuari dagokion ikurrin agurra plazan eta herriko ezpata-dantzarien saioa. **17:30** Dantza luzea foru plazan. **18:30** Pilota partidak. **Ondotik** Triki-poteoa. **21:30-23:30** Itsaso eta Irune Trikitilariak.

OKILA
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atek,eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein
Mikel Arborea

bai
euskara
zerbitzu
euskaraz

On egin janak eta kalterik ez edanak!
607 88 39 68 · lander@okila.eu
Piedadeko auzoa,32 · IGANTZI

ONGI PASA
BESTAKI

Ingurumen Zerbitzuak

ezpala

- PINADIEN BALORAZIOAK
- LUR NEURKETAK
- MENDIETAKO DIRULAGUNTZEN TRAMITAZIOA
- INGURUMEN TXOSTENAK OROKORREAN

ANDRES ZELAIETA ELTZAURDIA
IGANTZI - LEGASA - T. 606 31 45 26
andreszelaieta@hotmail.com



**Igantzi Udalak besta onak opa dizkizue
igantziar eta bisitari guztiei**

ARKUPEAK

GIZARTEA → ATERALDIAK

Uda garaian ere gogotsu ibili dira erretiratuak harat-honatean

Ikasturte berriari begira hainbat hitzaldi eta ikastaro prest dituzte

Fernando ETXEBERRIA

Arrazoi ezberdinen-gatik, uztailaren 26an ospatzen den San Joakin eta Santa Ana eguneko aiton-amonen eguna atzeratu behar izan zen. Azkenean, Arkupeak elkarteko 220 bazkide elkarteko ziren, Aralarren meza aditu zuten, hildako bazkideak gogoratuz eta Gorraizko gazteluan egin zituzten bazkaria eta bazkalondoko dantza saioak, Joxe Angelekin. Beste ateraldiei dagokienez, 92 bazkide Kroaziara joan ziren eta irailaren 14an 148 bazkide egin dute Lezo eta Hondarribirako txangoa.

Mendi ateraldia

22 mendizalek egin zuten Baraibar eta Aralar arteko joan-etorria abuztuaren 25ean. Eguraldia lagun izan zuten, aurreko egunetako bero itogarrik gabe. Ondotik, Mugiroko posadan elkartu ziren bazkaltzera eta irailaren 19an, larunbatean eginen duten hurrengo ekitaldia prestatzera: Eratsundik Otsolarako joan-etorria egingen dute.

Arantzazu eta Loiolara bixita

Arantzazuko Amabirjinaren bederatzirueneko lehen egunean, Arkupeak elkarteko 213 bazkide joan ziren santutegira. Aitortza taldean egin ondotik, 20 apez frantziskotarrek emandako meza aditu zuten. Gero, autobusetan Loiolara joan ziren bazkaltzera. Bazkalondoko dantzan ederki pasatu zuten askok eta beste batzuk, inguruan pasiatu zuten edo San Ignazioen basilika bisitatu zuten.

Ikastaro eta solasaldiak

Ikastaroetan izen emateko epea bukatu ondotik, parte-hartzaile aski lortu dutenak emanen dira ikasturte honetan. Parte-hartzaile gehien dituen dantza ikastaroa da; ondotik, lorategi eta baratzegintzakoa, kimaketa eta txertaketak, memoria-tailerra, etab...

Gazteluko Sagardia familiaren gertaeraz solasaldia Donezteben

Abuztuaren 29an elkarretaratzea egin zen Gazteluko Legarrea zuloan, Sagardia familia gogoratzeko. Jende asko bildu zen eta hizlari



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Goitiko argazkian, erretiratuak Baraibar eta Aralar arteko bidean; erdian, Aralarako santutegian eta behean, Arantzazun.

aritu zirenen artean, gaiari buruzko liburu argitaratu duen Jose Mari Esparza izan zen.

Hain zuzen, "La sima" liburuaren egilea izanen da hizlari irailaren 22an, arratsaldeko 7etan Doneztebeko zinemaren.



Martiko
Pol Zalain, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com

Ahatebicitan adituak eta arituak



DENDA ORDUTEGIA:
astelehenetik ortziratera
08:00etatik
17:00etara

GARRAIO ZERBITZUA → IRAILAREN 7TIK AITZINERA

Euskotren eta La Burundesa enpresek bat egin dute BORTZIRI garraio txartel berria sortzeko



Joan-etorriko bidaiaria egiteko aukera ematen du autobus eta totoa konbinatuz


TTIPI-TTAPA

Irailaren 7az geroztik dago eskuragarri Bortziri garraio txartela. Bortziriak eta Gipuzkoaren arteko harremanen garraio publikoaren erabilera sustatzea du helburu. Euskotreneko Topoko linea (Hendaia-Lasarte) eta Etxalar, Igantzi, Bera eta Lesaka artean joan-etorriko bidaiaria egiteko aukera izanen dute txartel hau eskuratzen duten bidaiariak. Irunen Colon pasealekuan eginen lukete bidaiariak trenetik autobuserako aldaketa edo alderantziz.

Bortziri txartel berria, Euskotreneko geltoki hauetan erosteko aukera izanen da: Lasarte, Amara, Anoeta, Intxaurren, Galtzaraborda, Errenteria, Irun Colon eta Hendaian, jendearentzako arretarako ordutegian. La Burundesa, berriz, salmenta autobusean bertan burutu da.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 902 543 210 telefonora dei dezakete. Horrez gain informazioa jaso dezakete geltokietan galde-tuta eta konpainien web guneetan sartuta.

BORTZIRI GARRAIO TXARTEL BERRIA



Joan-etorri TARIFA		
ABIAPUNTUA	HELMUGA	HELDUA
DONOSTIA-IRUN	BERA	5,18€
DONOSTIA-IRUN	LESAKA	6,08€
DONOSTIA-IRUN	ETXALAR	7,08€
DONOSTIA-IRUN	IGANTZI	7,68€

La Burundesa eta Euskotren enpresek **BORTZIRI garraio txartel berria** sortzea adostu dute, **Topo trenean** eta **La Burundesa autobusean erabiltzeko** balioko duena. Izan ere, BORTZIRI txartela eskuratzen duen bidaiariak aukera izanen du bidaiatzeko garraio txartel horrekin Irungo Topo tren-geltokian sartuta (Colon pasealekua) Lasarte eta Hendaia bitartean, betiere La Burundesa autobusekin konbinatuz.

Irailaren 7tik aitzinera sartuko da **indarrean BORTZIRI txartela**. Zehazki, garraio txartel honekin bidaiariak joan-etorria egiteko modua izanen du Lasarte-Hendaia bitarteko Topo trenaren geltokien artean eta La Burundesa autobusekin Bera, Lesaka, Etxalar eta Igantziko Benten artean dituen gurekuen arteko ibilbideetan.

Garraio txartel honek **egun baterako balio du**. Hau da, txartela erosten den egunetik kontatzen hasita hurrengo eguneko 23:59ak bitarte.

Informazio gehiago www.laburundesa.com, www.euskotren.es edo **948303505** telefonoan.



LA BURUNDESA

Eska ezazu takillan!!

euskotren

BORTZIRIAK

GIZARTEA → 'ATZO, GAUR ETA BETI' LELOPEAN

Euskal Artzainak Ameriketara elkartearen besta urriaren 3an ospatuko da Beran

Txartelak irailaren 25era arte salgai

TTIPI-TTAPA

'Atzo, gaur eta beti' lelopean, Euskal Artzainak Ameriketara elkartearen urteroko besta urriaren 3an Beran izanen da aurten. Kulturtransmisioaren garrantzia azpimarratu eta azkeneko urteetan elkarrekin bezala egiten ari diren lana erakutsi nahi dute. Gainera, aurten, Ameriketara joan ziren emakumeen lana goraiatu nahi dute «beraiek izan zirelako, batez ere, gure kultura, hizkuntza, baloreak, beraien seme alabei eman



ARGAZKIA: LAURA IGANTZI

Artzainak, Nestor Basterretxeak euskal artzainari Renon egindako eskulturaren aitzinean.

zizkietenak».

Aurten, Koldo San Sebastian eta Olga Dolagarainen laguntzarekin, Bizkaiatik autobu-

sen bat etortzeko ahalgina ere egiten ari dira eta Ameriketatik hainbat lagun etortzea ere espero dute.

Goizeko 10etan harrerara egiten zaie artzainei eta hamaiketakoak ere prest izanen dute Berako Musika eskola-

ko haurrek alaituta. 12:00etan meza eta bukaeran Dolores Lazkaroni omenaldi tiki bat egiten diote. Bankako Menditarrak taldeak ere, Ameriketara joandako emakumeei kanta bat eskainiko diete, kulturtransmisioaren egindako lana eskertuz. 13:30ean bazkaria izanen da Francisco soinulariak alaituta. 18:00etan zozketak egin eta 19:00ak aldera bukatuko da festa. Egunean zehar Berako Kultur Etxean Baztan, Etxalar, Lesaka eta Berako artzainen argazkiak ikusteko aukera izango dute.

Bazkarirako txartelak irailaren 1etik 25era arte egonen dira salgai ohiko tokietan.

GIZARTEA → IRAILAREN 18AN EGINDAKO DUTE BERALANDETAN

Euskaltegiko matrikulazio kanpaina bultzatzeko Mintzodromoa Beran

Ortzeguneko saioaren ondotik monologoa eta pintxopotea izanen dute

TTIPI-TTAPA

Euskaltegiko matrikulazio kanpainari bultzada emateko asmoz, Mintzodromoa egiten dute ortziralean, irailaren 18an Berako Bera-

landeta aretoan. Egitarauari dagokionez, 18:30ean izanen da Mintzodromoa. Funtzionamendua honakoa izanen da: parte-hartzaileak mahai baten inguruan eseriko dira lauko taldetan. Euskaldun oso batek, eztabaida dinamizatzen lagundu dezakeena, eta ikasten ari diren hiruk osatuko dituzte laukoteak. Bortziritako Euskara Mankomunitateak emanen dizkie solasgaiak, eta

15 minutuz hitz egin ondotik, bertze mahai batera mugituko dira, taldekideak ez errepikatuzko formula sinple bat erabiliz. Bertaratzen direnei pikatzeko zerbait ere eskainiko zaie. Aurkezle batek gidatuko du saioa, eta gonbidatu bereziak ere izanen dira parte hartzen: Estitxu Pinatxo abeslari bertarra, Estitxu Fernandez kazetari eta idazle lesakarra eta Josu Irtzoki Berako alkatea, errate-

rako. Hiru eztabaida txanda egiten dira.

Ondoren, 19:30 aldera hasiko da Monologoa: Unai Ormaetxea gazteak bakarrizketa umoretsua emanen du. 20:00etan Pintxopotea hasiko da: Berako ostalderaren barrena, parte-hartzaile guztiei pintxopote baterako balio duen txartela emanen zaie Mintzodromoaren amaieran.

Berako zazpi ostalderarekin adostu dute

pintxopotearena (Errekalde, Xuga, Bidaxka, Katakua, Lixoia, Auzoa eta Ikuilu).

IZEN-EMATEA

Izena emateko, Bortziritako Euskara Mankomunitatera deitu behar da (948 634 125) edo idatzi e-mail bat: euskara@bortziriak.eus helbidera. Lesakako IKA euskaltegian eta Arantzán, Mankomunitatearen egoitzan bertan ere ematen ahal da izena.

KULTURA → DONOSTIA2016-K KULTUR PROIEKTUAK BULTZATZEKO EMATEN DUEN LAGUNTZA

Neskatoak dokumentala egiteko diru-laguntza jaso du Jon Abrilek

Ipar Euskal Herrira eta Frantziara neskato joandakoen bizipenak biltzen ari da

TTIPI-TTAPA

Donostia2016-k kultur proiektuak bultzatzeko sortu duen Energia Olatuak deialdiaren baitan, Jon Abril beratarak aurkeztutako *Neskatoak* dokumentala grabatzeko egitasmoa diruz lagundu du. 2.016 euroko laguntza jasoko du Abrilek dokumentala egiteko.

1940 eta 1970 urteen artean emakume aunitz euren etxea utzi eta Ipar Euskal Herrira zein Frantziako bertze hainbat tokitara joan ziren neskato lanetan aritze-



ARGAZKIA: JON ABRIL

Argazkian, Pakita Irtzoki Berasain beratarra, grabazioko uneetako batean.

ra. Emakume horiek, nerabe eta neska gazteak, familia utzi zuten giblean, gehienak frantzesik jakin gabe, eta batzuetan, seme-alabak sorterrian utzirik. Gaur egungo migrazio-prozesuetan bezala, emakumeek paper hagitz aktiboa izan zuten orduko gizartean, bertan geldi-

tzen ziren gurasoei eta etxekoei ekonomikoki berebiziko laguntza eman baitzieten. Ameriketara joandako artzainen edota mendi-mutil Frantziara joandakoen historia ezaguna bazaitgu ere, ez dugu hainbertze ezagutzen emakume hauen historia, nagusiki, emakumeak di-

relako, eta etxeko lanak egitera joan zirelako.

15 TESTIGANTZA INGURU

Abuztuan hasi zen Abril dokumentala grabatzen. Hamabortzen bat emakumeren testigantza jasoko duen ordu bete inguruko dokumentala egingen du, emakumeen lana eta borroka agerian paratu, migrazio-fenomenoak ikusarazi eta ulertarazi, eta isilpean gorde diren istorio eta historia horiek bilduz.

AURKEZPENAK

Elkarrizketen grabazioak urria bukaerarako bukatuta edukitzea espero du, eta ondotik, emakumeen nazioarteko egunaren ingururako, aurkeztu nahi luke Beran. Ondotik, Donostian eta Baztan-Bidasoko hainbat tokitan erakustea da asmoa.

FLASH

Ate-irekiak Bidaziren egoitzan

Irailaren 18an Bidazi elkartearen proiektua ezagutu nahi duena Alkaiagako egoitzara hurbildu liteke. Informazioa 18:00etan gazteleraz eta 19:00etan euskaraz emanen dute.

XXI. Dantzari Ttiki

Gure Txokoa elkarteak antolatutako XXI. Dantzari Ttiki Eguna egingen da irailaren 26an. 200 dantzari baino gehiago karriketan barna ibiliko dira 10:30etik aitzinera. 12:30ean Altzateko plazan egingen dute jaialdia (euriarekin Alzateko frontoian) eta 16:00etan ekitaldia Alzateko frontoian.

Mendi Bizikleta ibilaldia

Irailaren 27an, XXIII. mendi bizikleta ibilaldia egingen da, 10:00etan hasita. Haurren probarako 9etatik 9:30era emanen da izena Matzadan (gurasoen autorizazioa behar da) eta helduen izen emateak 9etatik 10ak arte.

IRAILAREN 19 ETA 20AN

Konpaneko zubia inauguratuko dute Illeketako bestetan

TTIPI-TTAPA

Auzolanean moldatutako Konpaneko zubia inauguratzeko aprobetxatuko dute Illeketako bestetako txupinazoa, baina bertze hainbat ekitaldi izanen dituzte.

LARUNBATA, IRAILAK 19

- 12:00etan Altxaferua. Trikitixak eta gaiteroak. Erraldoiak eta buruhandiak.
- 13:00etan Herri kirolak. Apostua.
- 14:30ean bazkaria.
- 18:00etan mus txapelketa.

- 19:00etan Bera Kantari.
- 20:30ean Zezen-suzkoa.
- 21:00etan musika dantzarekin.

IGANDEA, IRAILAK 20

- 12:00etan Auzo Meza Idigotin.



- 12:00etan marrazki lehiaketa.
- 16:00etan haurrentzako jokoak.
- 19:00etan Gure Txokoako dantzariak.
- 20:00etan pintxo dastaketa.

➤ TDT instalazioak
 ➤ TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
 ➤ Instalazio indibidualak eta kolektiboak
 ➤ Satelite bidezko interneta

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabxako@gmail.com

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

LESAKA

GIZARTEA → ABUZZTUAREN 29AN

Gaztetxea eta logoa ezagutzera eman ditu Buruztanka Egunak

Egokitze lanetan segitzen dute auzolanean

Aitor AROTZENA

Herriko Etxeak Gaztetxea izateko komentuko aretoa utzi zuenez geroztik, auzolanen bidez beharrezkoak diren egokitze-lanetan dabil-tza gazteak. Oraindik egiteko lan aunitz badago ere, Gazte Asanbladak, gaztetxea herriarengana hurbiltzeko, eta jendearen iritzi, ideia nahiz parte-hartzea bultzatzeko asmoz, Buruztanka besta eguna antolatu zuen abuztuaren 29an. Gazte Asanbladatik aipatu digutenez, «goizeko dinamikan iritziak bildu genituen, gaztetxeko ondorio positiboak ateraz.




UTZITAKO ARGAZKIA

Gazteek ederki pasatu zuten Buruztanka Egunean, gaztetxeko ateak zabaldu eta logoa ezagutarazi bidenabarkoan.

Logoa eta gaztetxea barrutik erakutsi genuen, eta bazkari autogestionatura 65 pertsona inguru agertu ziren». Ondotik, jolas-poteo musikatua burutu zen, (txaranga eta trikitilariekin), eta bukatzeko dj Bakillak giro ederra jarri zuen Arranon.

Bertze behin ere,

adin guztietako herritarrek parte hartzea animatu nahi dituzte Gaztetxetik: «Laguntza, bai materiala (norbaitek balio duen zerbait zaborrontzira bota behar badu gurekin kontaktuan jarri), bai pertsona izan daiteke (auzolanetan edo ideiak ematerako orduan ere)».



Pertsonaia

Bixente IGARZABAL

Zazpigarren aldiz bukatu du Enbrunman

Abuztuaren 15ean burutu zen Enbrunman probaren 32. edizioa. Nazioarteko zirkuituko Ironman beteranoe-netakoa da, diru-sari garrantzitsuak dituen. Bixente Igarzabal zazpigarren aldiz atera zen eta lasterketa bikaina burutu zuen. 1.300 kirolarien artean 48. izan zen sailkapen orokorrean eta hamargarren bere kategorian. Beti Gazteko triatletak 11 ordu, 38 minutu eta 9 segundo behar izan zituen lasterketa bukatzeko. 3,8 km igerian egiteko ordubete, 13 minutu eta 47 segundo behar izan zituen, bizikletako 180 kilometro gogorak osatzeko 6 ordu, 41 minutu eta 17 segundo eta lasterka maratoia egiteko 3 ordu, 36 minutu eta 40 segundo.

IRAILAREN 20AN

45 eta 30 kilometroko ibilbideak aukeran izanen ditu Beti Gaztek iganderako prest duen Mendi Bizikleta ibilaldiak

A. AROTZENA

Beti Gazte elkarteak antolatutako Lesakako mendi bizikleta ibilaldiak bi ibilbide eskainiko ditu aukeran igandean: 45 kilometro luze eta 1.700 metroko desnibela duena luzeena eta 30 kilometro luze eta 1.000 metroko desnibelekoa laburrena. Igandean 09:00etan abiatuko dira txirindulariak eta 07:30etik 08:45era izanen dute izen emateko aukera. Igandean izena emanez gero, 20 euro ordaindu beharko dute federatuek eta 25 euro federatu gabekoek (13 eta 17 euro aitzinetik www.kirolprobak.com webgunearen bitartez eginez gero).

Prezio horretan, federatu gabekoentzat egun horretarako aseguruua, hornidura bidean, mediku asistentzia 4x4 anbulantziarekin, zozketak, paisaiak, bazkailurrekoa eta Beti Gazte elkarteak 75. urteurrena ospatzen duenez, oroigarriko kamiseta teknikoa jasoko dute txirindulariek.

Zalain • BERA • 948 630 052

Biturrana, 3 • Lesaka
Tel: 948 637 127

Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
t. 948 631 106 · 948 630 967
w. www.zalain.info e. sainz.amaia@gmail.com

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 27AN

Usategietako tradizioaren besta dator

Karote botatzeko Munduko II. txapelketa jokatu da

Irune ELIZAGOIEN

Egun osoko besta antolatu dute usategietan iraileko azkeneko igandean.

- 10:00etatik 13:00etara: Artisauen erakusketa eta salmenta, *Usoak Sarean* erakusketa (Sarako Ondarearen eskutik), Usazaleen paleta egite erakustaldi partehartzailea, Haurrendako puzgariak eta hamaiaketa-koa taloekin.
- 10:30ean Botaluze pilotu partida.
- 11:00etan: 2011ko irailaren 4ko Sara eta Etxalar arteko hitzarmenaren sinadura berrestea.
- 11:30ean: Usategietako makila (karote) botatzeko munduko II. txapelketa. Ondotik

nahi duenak paleta botatzeko aukera du.

- 13:00etan: Aizkoran eta arpanan Kañamarens aita-semeen arteko erakustaldia. Ondoren motozerra erakustaldia.
- 14:00etan: Aretxe haragia bazkaltzeko aukera Lizaietako zelaian, Sarako Saranga gaitariekin eta kantu tradizionalekin animatua. (Apuntatzeko epea irailaren 23a arte. Txartelak: Lizaietan, Herriko Ostatuan, Elutsan eta Sarako turismo bulegoan).

Enkantearen emaitzak

Irailaren 5ean egin zen Usategietako ehiza postuen lehen enkantea. Subastan 4 postu hutsik geratu ziren eta 6 postuk hobetu zuten hasierako prezioa. 12. postua izan zen prezioa gehien hobetu zuena (147 tanto eman baitzizkioten, hau da 1.470 euro gehiago). Udalak



ARGAZKIA: XANTI ELIZAGOIEN

Lizaietako benta zabaldu da

Joxe Oronozek hartu du errentan baina Carinne egonen da bertan lanean. Benta asteleheneretan itxia egonen da eta neguan larunbat eta igandetan bakarrik zabalduko dute. Gainerako egun guzietan irekita egonen da eta ostatu zerbitzuaz gain plater konbinatuak eta bokadiloak jateko aukera ere izanen da. Irailaren 5ean inauguratu zen eta Etxalar eta Sarako jende aunitz hurbildu da lehen egunetan bertara.

33.895 euro eskuratu ditu guztira.

Honen ondotik, ohikoa den bezala, bigarren enkantea egingen da hutsik gelditu diren postuak eta, hala bada, sesteatu direnak berriz ere enkantean ateratzeko. Bigarren enkantea asteartean egitekoa zen.

Hitzaldia Larraburuan

Sendabelarrei buruzko hitzaldia eskainiko du Kristiñek Larraburuan irailaren 24an 16:00etan. Denendako irekia izanen da hitzaldia eta ondotik kanpora aterata belar mota desberdinak ezagutzeko aukera izanen da.

IRAILAREN 20 ETA 21EAN

Urritzokietako Santakruz bestak ospatuko dituzte

I. ELIZAGOIEN

Urtero bezala Santakruz bestak ospatuko dituzte Urritzokietan auzoan. Irailaren 14an hasi dituzte bestak baina datorren astebururako ere egitarau bete da.

IGANDEA, IRAILAK 20

- 12:00etan meza Santa Krutz ermitan. Ondotik trikitilariak kalejiran auzoa zeharkatuko dute.
- 14:00etan Asau Sainduneko zubian.

Bazkaldu ondotik mus eta partxis txapelketak.

- 17:30ean jokoak.
- 18:30ean erromeria Elizagoien ahizpen eskutik.
- 21:00etan afaria. Trikitilariak afalondoa alaituko dute.

ASTELEHENA, IRAILAK 21

- 09:00etan gosaria antolatzaileek. Karpa desmontatu eta zubi ingurua txukuntzea bestari akabera emateko.

José I. Gonzalez Enguita
pinturak
barrukoak eta fatxadak
tel. 666 235 466

“TELLETXEA”
Lorazaintza

- Lorategiak diseinatzea eta sortzea -
- Mantentze lanak -
- Ureztatze sistema automatikoak -
- Kimaketak -

John Telletxea Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa
LESAKA • T. 619 418 683 • johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealozaintza.com

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com

IGANTZI

GIZARTEA → IRAILAREN 24RA ARTE APUNTA DAITEKE

Ttikitto ludoteka zerbitzua eskainiko dute aurten ere

2 eta 10 urte
arteko hurrei
zuzendua,
16:00etatik
18:30era

TTIPI-TTAPA

Aurtengo ikasturtean ere (2015-2016), Ttikitto ludoteka zerbitzua eskainiko da, Ttikittoko antolatzaileen, Lagunekin Jolasean Aisialdi Elkartearen eta Udalararen eskutik. Iaz bezala, 2 urtetik (Ttikittoko egitasmoan zehar betetzen dituztenak barne) 10 urte bitarteko hurrei eskainiko zaie. Datei eta ordutegiari dagokienez, urrian hasi eta Aste Santua arte izanen da; eskolako egutegia errespetatuko den arren, salbuespenen bat izan daiteke. Ordutegia 16:00-18:30 bitarte izanen da.

Zerbitzua astean zenbat egunez eta zein egunetan eskainiko den eskariaren arabera zehaztuko denez, hila-beteko kuota ere honen arabera izanen da.

Izen ematea irailaren 14tik 24ra izanen da eta Igantziko Udaletxean egin beharko da.

Zerbitzu hau aurrera eramateko, gutxienez 8 hurreko taldea atera beharko da, gehiengo

20 hurreko taldea izanik. Lehenetsuna Igantzin erroldatutako hurrek izanen dute.

Interesa dutenek, informazio gehiago edo zalantzaren bat argitu nahi izanez gero ttikittoigantzi@gmail.com e-postara idatzi behar dute eta erantzuna jasoko dute.

Besten aitzineko asteburuan ere ekitaldi ugari

Urtero bezala, San Migel besten aitzineko asteburuan hainbat ekitaldi izanen dira. Larunbat honetan, goizez, pintxo txapelketa eta dastaketa izanen dira eta arratsalde, plater tiroketa eta kankailu eta buruhandiekkin karrika buelta.

Igande goizean ere karrika buelta egingen da eta haurren herri kirol saioa. Eguerdian gazta lehiaketaren hamargarren edizioa burutuko da eta Nafarroako Ardoaren dastaketa ere egingen da, *Bizitzaren ttantak* izenburupean. Entrevinos agentziak antolatu du ekitaldi hau eta Inurrieta, Marco Real, R. Reverte eta Ochoa upategiek hartuko dute parte. Ardoak hobeki ezagutzeko eta modu egokian dastatzeko



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

120 txirrindulari Igantziko Mendi Bizikleta Lasterketan

Igantziko Biltoki elkarteak hogeita bosgarren aldiz antolatutako mendi bizikleta ibilaldian 120 txirrindularik parte hartu zuten irailaren 6an. Horietatik 85 helduen kategorian atera ziren eta 35 kilometroko eta 26 kilometroko ibilbideak izan zituzten aukeran. Aipatzekoa da Igantzi eta inguruko txirrindulariez gain, Gipuzkoa aldetik etorritako aunitz izan zirela. Haur ttikiek eta neska-mutiko koskorragoek ere izan zuten mendi bizikletan ibiltzeko aukera, ibilbide labur eta ertainean. 35 neska-mutiko atera ziren. Eguraldi bikaina lagun izan zuten.



jarraitu beharreko urratsak azalduko dituzte eta horretaz gain, gutukoaren diren ardoak

erosteko aukera ere izanen da bertan. Igande arratsaldean, Artzain Zakur lehiaketaren 35.

edizioa egingen da eta plazan gazta eta opil dastaketa eskainiko dute.

armadenda

andueza 

Paotxa Eraikina • Gorostiaga, z/g • Anaka industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net



UTZITAKO ARGAZKIA

Pelle-Ttikiko neska-mutikoak, Koldobikerekin.

KULTURA → IRAILAREN 19AN

Berriz ere pailazoak datoz Pele Ttikiren alde

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots izanen dira larunbatean frontoian

Nerea ALTZURI

Kontent eta ilusioz daude etxeko ttikienak eta helduak ere. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan taldeak, Txo Mik Mak txikia ikuskizuna eskainiko du larunbat honetan frontoian, 17:00etan.

Lan honetan, Albao-lako itsas ondarearen berri ematen da eta herriz herri egurraren eta itsasoaren usaina eramaten ari dira pailazo-

ak. Txo Mik Mak txikia indioa da protagonistetatik bat eta itsasoaren bertze aldetik, Ternuatik, ailegatu da. Larunbat honetan, berarekin eta bere atautxi Roke-rekin plana eginen dugu beraz, mundua aldatzeko helburuarekin.

Ikuskizun guzietan bezala, honetan ere, dantzatzeko, kantatzeko eta ikasteko aukera izanen dugu.

Sarrerak salgai daude 8 eurotan, ondoko lekuetan: Arantzako Zakutenea, Pabloenea eta Burlada ostatuetan; Etxalarren Herrik okindegian; Igantzin La Villa jatetxean; Lesakan Izarra okindegian; Be-



UTZITAKO ARGAZKIA

Pantikosara joan ondotik, Palestinara bidaiari antolatatu dute

Joan den uztailaren 19an, ekain bukaeran itsas bidaiari edo kruzeroa egin zuten bidaiariak Zahar txokon bildu ziren. Bazkaldu, egindako bidaiari kontuak partekatu eta hurrengo bidaiari berri azaldu zien Martin Legarrak. Batetik, Pantikosako bainuetxean egonaldia abuztuaren 23tik 28ra izan zen (argazkian). Aski osasungarriak diren urekin zirkuituak eginez, egonaldi ezin hobea egin zuten. Bertzalde, heldu den otsailaren 19tik 26ra Palestina-Israel, Lur Saindura bidaiari antolatu da. Joan den asteburuan itxi zen izen emateko epea. Aitzina-gore ere, bidaiariaren nondik norakoak, xehetasun osoz azalduko ditugu.

rako Xuga ostatuan; Donzteben Titi ostatuan eta Sunbillan Ariztigan kanpinean. Egun berean ere salduko dira.

Pelle-Ttiki haur eskolan zortzi haurrek abiatu dute ikasturtea. Izei Zugarramurdi, Yuri De Rueda, Amets Madariaga, Garazi Zulaika, Oier Errandonea, Eneit Elizalde, Inge Martina Garaita eta Oier Iparragirre, Koldobike Gorostiza eta etxekoekin goxo-goxo egokitzen prozesuan daude.

Web orria berritua

Abuztuaren etxeetara bidali zen udal informazioan, ataltxo honetan aipatu izan ditugun berrien artean, www.arantza.eu udaleko web orri berrituaren berri ematen da. Hainbat eduki aurki ditzakegu atal ezberdinetan banatuta. Beraz, herriko berriak jakiteko informazio guztiaren interesgarria izaten ahal da, gaur egun, aunitzek sakeleko telefonoan ere ikusteko aukera.

Ikasturte berria

Aitzinekoan aipatu moduan, irailaren 10ean ikasturte berria hasi zuten eskolan. Berrikuntza eta txukunketa lan batzuk (paretak xuritu, hoditeria moldatu...) udan egin ondotik, 74 ikasle eta 10 irakasle eguneroko martxari ekin diote. Jangela zerbitzua urritutik eskainiko da.

Urte urte kopurua gorantz doa. Aski seinale ona hori, herriaren etorkizunean eskolagarrantz handia baitu.

JASONE - COXOTEGIA
948 630 786
Altzate, 21 • BERA

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
Jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

A
aterpe
albergea jatetxea ostatua
T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta
Instalazio Elektrikoak

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

SUNBILLA



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko dantzariak prest daude larunbateko jaialdirako.

KULTURA → IRAILAREN 19AN

Dantza jaialdia egingen dute larunbatean

Zazpigarren edizioa da

Maider PETRIRENA

Herriko dantzariak eskaintzen duten dantza jaialdia zazpigarren urtez ospatuko dute irailaren 19an, larunbat arratsaldeko 7:30ean. Bertan herriko haur, koskor eta helduek parte hartuko dute, hainbat dantza ezberdin dantzatzuz: Neskaxa, Orka punta, Txulalai, El ziego, Kortez, *Arin latin*, Jokua eta Borobila, Martzillako arku dantza eta Zinta dantza, San Isidro, Makil haundi, Gipuzkoako Fandangoa, etab... Animatu, urtero bezala ikuskizun ederra eskainiko baitute.

Ikasturte hasiera

Ttikien ludoteka zerbitzua irailaren 4a bitartean martxan egon da. Opor egun batzuren ondoren, irailaren 10ean, inguruko eskola gehienetan bezala, herriko haurrek ere hasiera eman diote 2015-2016 ikasturteari. Guztira 93 ikasle izanen ditugu herriko eskolan. Haur hezkuntzan 29 ikasle izanen dira eta lehen hezkuntzan, berriz, 64. Bederatzi ikasle izanen dira lehen aldiz eskolan hasiko direnak. Horrez gain, eskolaz aldatzen den ikasle bat etorriko zaigu eta bertze batek gure ikastetxea utziko du. Eskola hasierarekin batera jangela zerbitzua ere



Ba al zenekien

Aitor Etxalar ikasleak aurtengo ikasturtean Baionan egingen dituela ikasketak



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA


1949ko kinto besta

1949an sortutako kinto besta ospatu zuten Ariztigain Kanpinean. Herriko kintarik haundiena da, 37 guztira eta 20k aukera izan zuten egun eder eta polit honetaz gozatzeko, argazkian ikusi daitekeen bezala.



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA
Haur Hezkuntzako eskolakoen patioa dotore gelditu da txukuntze lanen ondoren.

martxan jartzen da, beraz, nahiz eta eskola goizetan bakarra eduki jangelara joaten diren haurrak arratsaldeko 3ak arte bertan egoten dira. Honekin batera aipatuko dugu Haur Hezkuntzako eskolakoen patioa txukuntzeko moldaketak egin direla eta egia erran, hagitz polita gelditu da.



Pertsonaia
Felix SARRATEA

Legazpiko Artzain Egunean omendu dute

Sortzez Gaztelukoa, baina aspaldian herrian bizi den Felix Sarraatea omendu zuten Legazpin, Gipuzkoako 25. Artzain Egunean, Estatu Batuetan egingako artzain lanarengatik. Dantzariak agurra dantzatu eta zapia, makila eta orogarria oparitu zizkioten.



48 SARRERA
ZOKETATUKO
DITUGU
urtean zehar

DONOSTIA / SAN SEBASTIAN
ΔOVARIVM

Carlos Blasco de Imaz Plaza DONOSTIA
Tel +34 943 44 00 99



Rebeca Aranzadi Ubierna | REBECA DANTZA AKADEMIA

«Rebeca Dantza Akademian teknika eta dibertsioa eskutik doaz»



www.facebook.com/academiadedanzarebeca

Dantza akademia ireki berri du Donezteben Rebeca Aranzadi dantza irakasleak. Bizitza osoa dantzari lotuta, 15 urte daramatza eskualdean klaseak

ematen. Urritik aitzinera, Zazpigarutze karrikako 6. zenbakian dagoen akademia berrian, hamaika ikastaro eskainiko dituzte. Gainera, Hip Hop School meto-

doa lantzen duen Nafarroko akademia bakarra da. Haur, gazte zein helduek, dantzan ikasten duten bitartean, ongi pasatzeko aukera izanen dute.

Zein da zure akademiaren bereizgarria?

Dibertsioa eta seriotasuna lotzen ditu gure akademiak. Ikasleek dantzan gozatzea da helburua eta era berean, teknikari garrantzia ematea. Disfrutatzea nahi dugu, baina egindako esfortzua ere neurtu nahi da. Horregatik, ikasturte amaieran Hip Hop School eta Royal Academy of Danceko irakasleak etorriko dira eta hip hop eta balleteko ikasleek azterketa egin beharko dute.

Gainera, Nafarroan Hip Hop School metodoa landuko duen akademia bakarra izanen zarete. Zertan dantza?

Teknika, estiloa, erritmoa eta gorputz-espresioa lantzen dituen metodoa da. Izan ere, bertze dantza disziplinetan bezalaxe, Hip Hop dantzariak ere arlo guzti horiek landu behar dituzte beraien maila hobereenera heldzeko. Ikasleek dantza bere osotasunean ezaugutu, ulertu eta praktikatzeko da helburua.

Nori zuzendatuko ikastaroak dira?

Dantzan edonork goza dezake, adina eta sexua ez dira muga. Horregatik, haur, gazte eta helduendako ikastaroak



Rebeca Dantza Eskola irekiko dute Donezteben urrian.

antolatu ditut. Neskato eta mutikoei, emakume eta gizonezkoiei... elkarrekin dantzan ikasteko aukera eman nahi diet.

Zein ikastaro eskainiko dituzu?

Balleta, Dantza-Jazz, Hip-Hopa, aretoko dantzak, Ekialdeko dantzak, Sevillanak, Gimnasia erritmikoa, Zumba eta Haurrendako zumba.

Hainbesteko aukera izanda, nola aukeratu?

Inongo konpromisorik gabe etorri eta probatu

HARREMANETARAKO

Informazio gehiagorako:

T. 607 744 199

academiadedanzarebeca@gmail.com

Zazpigarutze, 6
DONEZTEBE

tzeko aukera izanen da. Dantza modalitate bateko eta bertzeko klase bana eman eta gehien gustatu zaiena aukeratu dezakete bezeroek.

Bertze ikastarorik ere eskainiko duzu?

Bai, noski. Kirola eta dantza konbinatuko ditugu batzuetan, Body balletean adibidez. Eta gorputz oreka lantzeko aukera ere izanen duzue pilates klaseetan. Eta horretaz gain, mundu mailan arrakasta handia izaten ari diren hard training eta

abdo stretching ikastaroak, 30 minutuko saio intentsiboak ere emanen dira urtean zehar.

Familiarentzat aukera berezia ere izanen da...

Estreinakoz Family Partyak antolatuko ditugu. Seme-alabak eta gurasoak elkarrekin egonen dira klaseetan. Horrela, denbora libreaz familian gozatzeko aukera izanen dute.

Non eskuratu liteke informazio gehiago?

Gure sare sozialetan edo gurekin zuzenean harremanetan jarriz: academiadedanzarebeca@gmail.com edo 607744199. Urritik aitzinera hasiko gara lanean, animatu zaitezte!



DONEZTEBE

GIZARTEA → AITZIBER ERASUN DA GIDARIA

Haur Etxea martxan da

Batera haziz edo 'Creciendo juntos' elkarteko partaide da Doneztebekoa

Marga ERDOZAIN

Uhartegaina etxean inauguratu da Doneztebeko Haur Etxea. Batera Haziz elkarteak ezarritzen duen heziketa-proietuan murgilduta 0-3 urte bitarteko txoko honen 2015-16 ikastur-

te berria abiatu du hiru umerekin. Haurrei eta talde txikiei (gehienez lau haur) egokitutako proiektuaren bidez egiten du lan haur etxe honen. Haurraren errespetua (erritmoa, beharrak, interesak...), maitasuna, goxotasuna, lasaitasuna, arreta berezia, segurtasuna, babesa eta gurasoekin elkarlana dira hezkuntza eredu honen zutabeak. Etxe honetan haurrek naturarekin (zuhaitzak, baratza, animalia ezberdinak...) zuzenean goza-



ARGAZKIA: M. ERDOZAIN

Oraingoz, hiru umerekin lanean ari da Aitziber Erasun gidaria.

tzeko aukera izanen dute, inguru lasaian. Ordutegiari dagokionez aipatu behar da goizeko 7:30etik arratsaldeko 4etara zabalik dagoela.

Zentroak lau plaza ditu eta dagoeneko 3 beteak daude. Gelditzen den plaza betetzeko aukera dago, horretarako 620145500 tele-

fonora deitzen ahal da. Aitziber Erasun da proiektu honen gidaria, (Heziketa Bereziko irakasle eta Gizarte Hezitzaile da).

KIROLA → IRAILAREN 10EAN

Erreka emakume taldea abiatu da

Hirugarren denboraldia dute korrika

Marga ERDOZAIN

Irailaren 10ean, zapatilak jantzita, hasi dute ikasturte berria neska korrikalariak. Aurreko urteetan bezala, orotzegunero 20:00etatik 21:00etara eta ekaina bitarte aukera izanen dute neskek kilometroak egiteko eta lasterka egitearen onurak dartzeko. Parte-hartzailerri berriak Errekako bazkietza eskuratuko dute. Apuntatzen direnak duten mailaren arabera bereiztuko dira, dagokion prestakuntza eta entrenatzailearen agin-

duak jasoz. Urtean zehar proba ezberdinetan parte hartzeko asmoa landuko dute: San Silbestrea, Lilatoia, Doneztebeko krosa... Interesatuak honako helbidera idazten ahal dute: japezetxea@hotmail.com

Agorreta Musika Eskola

Irailako bigarren martikulazio kanpaina burutu ondoren taldeak eta ordutegiak zehaztuta ikasturte berria abiatuko du eskola honek. Abesbatza, hezkuntza musikala eta bertan eskaintzen diren instrumentuak ikasteko aukera izanen dute 2015-16 ikasturtean izena eman duten ikasleek.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko III Laxoa txapelketa jokatu zuten

Zortzi talde, 35 guntelari, aritu ziren abuztuaren 29an jokaturako Doneztebeko 3. Laxoa txapelketan. Irabazleak: Josu Juanena, Ramuntxo Etxebeste, Damián Iribarren eta Iban Santesteban izan ziren, finalean 7-2 irabazi baitzieten Asier Mutuberria, Joxe M. Mitxeltoarena, Eloy Garzia eta Pio Garziari. Trofeoak Xanti Uterga alkateak banatu zituen. Gainera, goizeko partidetan txaxari eta epaile lanetan ibili zen.

Eskubaloiko nesken senior taldea Nafarroako ligan lehiatuko da

Pasa den denboraldian gogor entrenatu ondoren aurrerapausoa eman dute neskek eta lehiatzera animatu dira. Juan Mari Artazkoz eta Javi del Villar izanen di-

Ba al zenekien

Irailaren 22an, asteartean, 19:00etan, Jose Mari Esparza Zabalegik zineman *La Sima: ¿qué fue de la familia Sagardia?* liburuaren inguruko solasaldia eskainiko duela. Arkupeak eta Udala dira hitzordu honen antolatzaileak.

ra talde honen entrenatzaileak.

Bertze aldetik, aipatuzkoa da berriki akitu

den gazte eta gazte txoen laxoa txapelketan herriko 18 mutikok parte hartu dutela.

OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 19AN

Joaldunen Eguna ospatuko dute larunbatean

Julio Soto eta Jon Maia ariko dira bertsoan

Arkaitz MINDEGIA

Joaldunen Eguna irailaren 19rako, larunbata, antolatu du Ibitza kultur taldeak. Goizeko 10etan joaldunek eta herriko trikitilariak ibilaldia egingen dute baserri. 14:00etan aizkora apustua jokatu da eta ondotik Julio Soto eta Jon Maia bertsolariak ariko dira. 15:00etan bazkaria egingen da herriko plazan. Arratsaldean eta gauaz dantzaldia Salaberri soiniariaren eskutik.

Herriko Joaldunak han eta hemen dabilta

beraien joare soinuak zabaltzen. Iturengo joaldunak Huarte Arakilgo artzai egunean eta Zarauzko Euskal jaian ibili dira. Aurtizko joaldunak, berriz, abuztu bukaeran Nafarroa Oinezek antolaturiko Oinez lasterketan izan ziren, parte hartzaileak eta bazterrak animatu nahirik ibilbideko zati batean, Belaundik Urruskaraini Berdaitzko lepotik pasaz.

Artisau eta Lanbide Azoka

Dagoeneko urte bat baino gehiago bada hilabetearen bigarren igandean Artisau eta Lanbide azoka izaten dela herrian, gisa guzietako postuak izaten ditugu bertan: janaria, bitxiak, jantziak... Irailari zegokion azoka pasa berri dugu eta hurrengo urriaren 11n ospatuko da. Gainera, uztailetik aitzinera azokaz gain ateraldiak, Toka txapelketa, trikitixa emanaldia, tailerrak... antolatzen dira.



ARGAZKIA: URRUSKA LANDETXEAK UTZIA

Aurtizko joaldunek Elizondo eta Aldude arteko Oinez lasterketa-ibilaldia ere girotu zuten.

tako postuak izaten ditugu bertan: janaria, bitxiak, jantziak... Irailari zegokion azoka pasa berri dugu eta hurrengo urriaren 11n ospatuko da. Gainera, uztailetik aitzinera azokaz gain ateraldiak, Toka txapelketa, trikitixa emanaldia, tailerrak... antolatzen dira.

Eskolaz kanpoko jarduerak martxan

Eskola hasten denean ere eskolaz kanpoko jarduerak martxan

jartzen dira. Herrian eskaintza hauek izaten dira: Kenpo kai, dantzak, pandero eta trikitixa...

Kenpo Kai irailaren 16an hasi zen, asteazkenetan emanen baitu aurtengoan ere. Mordestok, arratsaldeko 4etatik 6etara Herriko Etxeko ganbaran.

Bertzalde, Mendaur trikitixa eskolak urritik maiatzera Trikitixa eta Panderoko ikasturtean apuntatzeko deialdia eginga du dagoeneko. Irailaren 21a izanen da

apuntatzeko azken eguna.

Ibai Berregi lanean

Aurtiztar gazte hau han eta hemen ibili da uda osoan zehar lasterketa ezberdinetan parte hartzen. Burutu dituen azkeneko lasterketak Agerrako krossa eta Guadalupeko igoera izan dira. Bietan nahiko lan txukuna eginaz, gainera! Uda bukatuta, orain Behobia-Donostia lasterketa prestatzen hasia da buru belarri.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

ESKAINZA: mantak
edredoi fundak · albornozak · edredoi nordikoak · ohe estalkiak · maindireak · mantelak · kuxinak · toailak
Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

ZUBIETA



ARGAZKIA: FERMINTXO GARTXITORENA

Ameriketean ibilitako artzainak omendu dituzte Legazpin

Gipuzkoako 25. Artzain Eguna ospatu zuten irailaren 6an Legazpin. Estatu Batuetan lanean aritutako artzainak omentzeko ohitura dute eta aurten Malerre-kako hiruk jaso dute aipamena. Ezker-eskuin: Saldiasko Jose Mitxeko, Zubietako Santi Hualde eta Sunbillako Felix Sarraatea.

OSPAKIZUNAK → URRIAREN 10EAN IZANEN DA

Euskararen Eguna prestatzen hasiak dira

Bileratan hasiak dira urtetik urtera indartzen ari den festa prestatzeko

Fermin ETXEKOLONEA

Hurrengo alean aipatuko dugu egitarau zehatza, baina gazteek antolatzen duten Euskararen Egunak badu data: urriaren 10a. Beraz, ongi apuntatu agendan

eta prestatu ospatzeko, nahiz lanean aritzeko. Bileratan hasiak dira eguna antolatzeko.

Jaiotza eta heriotza

Narrea Elizalde Mariezkurrena jaio zen



ARGAZKIA: EVA ELIZALDE

Kilo eta erdiko patata porka Borraldan

Borralda baserriko Patrixi Telletxearen baratzetik Oskia bere bilobak kontzen duen 1.560 gramoko patata porka eder hau atera dute. Orokorrean, patata urte ona izan da aurtengoa eta horren erakusgarri da argazkiko ale berezia.

abuztuaren 30ean. Zorionak Martxel eta Leire gurasoei eta Juan eta Lurdes ataxi-amatxiei. Beste aldetik, Bixkote-

neko Eustaquio Santesteban Mutuberrria hil zen abuztuaren 28an, 97 urterekin. Doluminak familiari.

SALDIAS

GIZARTEA → KOSKORTU ARTE EZ DUTE IKASLEEK KANPORA JOAN BEHARRIK

Eskola handitzen ari da

Gero eta haur gehiago

Markel LIZASOAIN

Urte askoan hortxe hortxe ibili gara Saldiasko eskola itxiko ote zuten beldurrez. Eta orain ere hala gaude, baina, hondarreko urteetan, goitzen ari da pika bat eta badirudi beste urte sailtxo batean,

behinik behin, ez dutela legea eskuetan hartuta itxiko, urtero ari baita umeren bat jaiotzen.

Beharrik eskolari, haurrek ez dute autobusik hartu behar, ezta goizago jaiki behar. Baserrikoek karreteraren arriskua dute; gainera, hori ere ez.

Gure herriko neska mutil koskorak, berriz, horiek bai, Doneztebe-

ra joan behar, nahi eta nahi ez. Adinean baitaude. Adinean, hala berean, elkarrekin hiketan aritzeko. Horren partez, fuerte erdaraz, ostikoka bada ere. Beraiek ikusiko dute. Gurasoek eta irakasleek, behinik behin, kulparik ez dute eta errietarik ez zaiotela eman hau leituta. Haurrak berak hartu behar du kontzientzia. Nola-



ARGAZKIA: MARTEL LIZASOAIN

Hasia da ikasturte berria eskolan.

nahi dela ere, burutik ez kendu, lehen eta orain, Espainiak komeni zaion bezala zibilizatzen di-

tuela gure haurrak. Iku-si egin behar, hemendik laster, katalan haurrak ere hala heziko dituen.

BESTAK → IRAILAREN 25ETIK 29RA

Herriko Sanmigel bestak ekitaldiz beteak datoz aurten ere

Igor Elortza eta Jexux Mari Irazu arituko dira kantari herri bazkarian

TTIPI-TTAPA

Bortz eguneko San Migel bestak antolatu dituzte Urrozen, iraileko azken ortziralean hasi eta egun handiarekin akituko direnak.

ORTZIRALA, IRAILAK 25

- 17:00etatik 20:00etara puzgarriak.
- 20:00etan altxaferoak eta ezkil jotzea.
- 20:30ean zopak Herriko Ostatuan.
- 00:00etan dantzaldia SALABERRI soinulariarekin.

LARUNBATA, IRAILAK 26

- 10:00etan puzgarriak.
- 10:30ean mus txapelketaren hasiera.

- 18:00etan pilota partidak.
- 20:00etatik 22:00etara dantzaldia GABENARA taldearekin. Ondoren gazteek paella jatea.
- 00:00etatik 05:00etara dantzaldia GABENARA taldearekin.

IGANDEA, IRAILAK 27

- 10:00etan puzgarriak.
- 13:00etan aizkora apostua. Larretxea eta Iker Vicente, Arria V eta Mieltxo Mindegia- ren aurka.
- 17:00etan trikitilariak.
- 18:30ean Gorriti eta bere animaliak.
- 22:00etan patata tortila lehiaketa.
- 20:00etatik 00:00 bitarte dantzaldia AGERRALDE soinulariarekin.

ASTELEHENA, IRAILAK 28

- 10:30ean mus txapelketaren bukaera.



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Tiropitxonaren ondoan ere ederki erretzen dela hirugiharra! Ttikienek ere ederki pasatzeko aukera izanen dute astelehen goizeko jokoetan eta kasik egunero izanen diren puzgarrietan.

- 11:00etan haur jokoa.
- 14:00etan herri bazkaria, Igor Elortza eta Jexux Mari Irazu bertolariekin.
- Arratsaldean eta afaldu ondoren 01:00 bitarte dantzaldia JOXE ANJEL soinulariarekin.
- 12:00etan Meza Nagusia. Ondoren luntxa Herriko Ostatuan.
- Arratsaldean herria garbitzea eta ondoren afaria beste bukaera emateko.

ASTEARTEA, IRAILAK 29 SAN MIGEL EGUNA

- 10:30ean puzgarriak.

Urrozko Udalak



besta zorionsuak
opa dizkizue
urroztar eta bisitari
guztiei

- Plater konbinatuak
- Bokadilloak
- Razioak
- **BESTETAN ZOPAK!**

Ongi pasa bestaki!
Herriko
ostatua

San Migel, 1 · URROZ · 948 920 981
urrotz@herrikostatu.com



BILTEGIA 948 630 102
FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA



Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

EZKURRA

GIZARTEA → ESKERTZA

Boluntarioen lanik gabe ez da festarik

Fernando ETXEBERRIA

Aurtengo festak aspaldiko urteetako onenak izan direla aipatu genuen. Herritar askoren arabera, azken eguneko bazkaria eta mariatxien emanaldia izan dira ekitaldirik aipagarrienak. Gainera, herriko kantariak ere igo ziren oholtzara eta txalo zaparrada galanta jaso zuten.

Festen arrakastaren arrazoia, batetik egitaraua izan da, guztiontzako moduko ekitaldiak antolatu baitziren. Baina, ekitaldiak boluntarioen lanik gabe aurrera eramatea ezinezkoa denez, aipamena merezi dute. Festen aurretik herriko karrikak eta txokoak garbitu zituen taldetxo batek, Beñat eta Txumaren agindupean. Alkateak eta zi-

negotziek oholtza prestatu zuten musikoek bertan jo zezaten eta herri kirol saioa ere beraien antolatu zuten. Jaione, Bixenta eta Ana Isabelek haurrentzako jokoak eta txokolatea prestatu zituzten. Zi-priano eta bere laguntzaileek, Txuma, Ivan, Migel eta Ramonek, aizkolarientzako egurra prestatu zuten eta gero frontoia garbitzeaz arduratu ziren. Azkeneko egunean berriez, Jose Luisek gidatuta, lagun talde batek bazkari bikaina prestatu zuen eta ongi zerbitzatu gainera. Mila esker denei eta segi ezazue horrela lanean datorren urtean ere.

Heriotza

Abuztuaren 28an Maria Jesus Juantore-



Nabari da mariatxien emanaldian giro bikaina sortu zela. Herriko kantariak ere animatu ziren.

ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

na hil zen Iruñean. Hiru egun lehenago ondoezik sentitu eta hospitalera eraman zuten. Hileta eta elizkizunak, irailaren 29an izan ziren Ezkurran. Duela 79 urte jaio zen Eratsungo Txopillo baserrian. 1959an Juan Zestaurekin ezkondu zen eta Plazenea baserrira etorri zen bizitzera. Senarra hildakoan, herriko Plazenea etxera etorri zen bizitzera. Bertan jasotzen zuen asteburu bere seme-alaben bisita. Zazpi seme-alaba izan zituen eta bere semearen heriotza sufritu behar izan zuen, Bergaran hil baitzen lan-istripu batean. Goian bego.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Migel Joakin Noblek 80 urte

Beste herritarrek egin ohi duten bezalaxe, 80 urte bete izana ospatu zuen Migel Joakinek bere familiako kideekin. Barranka Ostatuan egin zuten bazkaria eta besteak beste, bere familiako kide den Gregorio Garziarena izan zen bertan. Herriko pertsonarik adinduen, 90 urte ditu eta sasoiko dago!

ESKAERAK IRAILAREN 25ERA ARTE AURKEZTU LITEZKE

Plazaola Partzuergo Turistikoak kudeatzaile lanposturako hautapen prozesua abiatu du

TTIPI-TTAPA

Kudeatzaile lanpostua ordezkatu eta lan poltsa osatzeko eskaintza kaleratu du Plazaola Partzuergo Turistikoak. Eskaerak Lekunberriko bulegoan aurkeztu behar dira irailaren 25a baino lehen.

Jardun osorako lana eskaintzen dute, ordutegia beharren arabera malgua izango da eta soldata gordina 2.653,80 eurokoa izango da hilean. Kudeatzaile lanpostua betetzeko ezinbestekoa izango da unibertsitate titulua izatea (Turismo, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzan Lizen-

tziaura, Ekonomia eta enpresa edo Zuzenbidea) eta euskara ezagutza zabala izatea (C1/EGA). Ofimatikan eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berrietan ezagutzak izatea eta azkenik, gidabaime-na eta ibilgailua edukitzea.

Turismo, marketing, komunikazio... alorretan ezagutza izatea ere kontuan hartuko da; baita ingeles eta frantses maila ere (titulazioa aurkeztuta) Alorturistikoarekin, tokiko garapenarekin... lotuta dauden enpresen zuzendaritzan esperientzia profesionala izatea ere baloratuko da.



ARGAZKIA: JOSE MARI ZABALETA

Mikel Aingeruari bisitan

Eskualdeko hainbat herritako gurutzeekin batera, Are-sokoak ere bisita bueltatu zion Mikel aingeruari irailaren 6an. Guardetxetik oinez abiatuta, erromerian joan ziren denak bildu arte. Ondoren aitortza sakramentua eta 12:30ean meza izan zen. Bildutako dirua Venezuélako behartsuei laguntzeko izango da.



OSPAKIZUNAK → IRAILAREN 5EAN

Alesbesko Euskararen Egunean kantari

Umore Ona Abesbatzak parte hartu du

TTIPI-TTAPA

Alesbesen (Villafranca), II. Euskararen Eguna ospatu zuten irailaren 5ean. Bertan, Umore Ona abesbatzakoak

egon ziren, Ereñotzuko Ozenki abesbatzakoekin batera, beraien gonbidapena jaso ondotik.

Giro bikaina izan zuten eta jende mordo bat hurbildu zen. Ospakizunera hurbildu zirenen artean, Adolfo Araitz nafar parlamentaria izan zen.



ARGAZKIAK: ARRITXU SALEGI ETA ANGEL SALABERRIA

Zestean eta Antiguan txapeldun

Bi txapel haundi irabazi ditu abuztu bukaeran Iker Salaberriak, jubenil mailan. Hilaren 27an, Zestean jokatuak Dinastia Etxabe txapelketaren finalean, Atarrabiko Iruritarrekin batera 22-7 irabazi zieten Ataungo Zubizarreta eta Leitzako Eskuderoi. Hilaren 30ean Antiguan, Aginagako Arangurenekin bikote eginez, 22-10 irabazi zieten Markinako Agirrezabala eta Urizarri. Finaleko pilotari onenaren saria ere jaso zuen Ikerrek.



ARESO

IZEN-EMATEA → IRAIL BUKAERARA ARTE

Kirol ikastaroetan izena emateko epea zabalik

1959 eta 1964 urte artean jaiotako kinto bazkaria irailaren 19an

Juana Mari SAIZAR

Ikasturte honetan kirola egiteko asmoa dutenek, irailaren 30era arteko epea dute Sastinean jarri den paperean apuntatzeko. Ea talde txo polita bildu zen eta

oso gustora ibili ziren. Ea oraingoan ere, animatu eta herrian bertan zerbait martxan jartzen den.

Kinto bazkaria

laz egin zen lehen aldiz eta aurten ere antolatuko dute 1959-1964 artean jaiotako kinto bazkaria. Irailaren 19an izango da Pake Toki Elkartearen. Beste kintoak ere taldeka elkartu eta herrian kinto eguna egitea ere polita litzateke!



ARGAZKIA: UXUE GOIKOETXEA

Urteroko zita irailleko lehen igandean

Eguraldi bikainarekin, primeran joan zen mendi martxa. Irailaren 6an, izan zen kirol proba eta dena ongi ateratzeko bai bezperan eta baita egunean bertan ere lanean aritu ziren herritarrak. Aresoko plazatik abiatu ziren mendizaleak 21 kilometroko ibilbidea osatu asmoz. Tartean Urkitako gainera igo behar izan zuten, hauxe da ibilbideko punturik gogorrena eta aldi berean estuena, igoera eta jeitsiera toki beretik egiten delako. Ez da proba lehiakorra izaten eta gehienek lau-bost orduren bueltan egin ohi dute, hala ere, aipagarria da hirukote batek, 2 ordu eta erdian osatu zituela 21 kilometroak, tartean Arkaitz Nieto herritarrak. Mila esker parte hartzaileei eta baita antolakuntza lanetan ibili ziren guztiei ere, datorren urtera arte!!

LEITZA

OSPAKIZUNAK → BEZPERAN STOCK AZOKA EGINEN DUTE

Talo eguna eta Plazaolako Maratoi erdia irailaren 20an izanen dira

Ibilbidea aldatu dute eta maratoi erdia Leitzako plazan bukatuko da estreinakoz

JM BARRIOLA

Turismoa erakartzeko asmoz, duela hamar urte antolatu zuten lehenbiziko talo eguna Plazaola Turismo Partzuergoak eta Leitzako Udalak eta geroztik indartzen joan den festa da. Aurten, gainera, Plazaolako Maratoi erdia ere egun berean izanen da eta ibilbidea aldatu dutenez, Mugiron hasi eta Leitzako plazan izanen du lehenbizikoz helmuga.

10:00etan emanen zaio hasiera festari. Urtero bezalaxe, Saralegi eta Villabona talogileek taloak prestatuko dituzte eta artisau azoka eta talo erakusketa ere izanen dira plazan. Baserriko tresneri zaharren erakusketa ere jarriko dute eta taloa, artillera, sega pika, arto zuriketa... nola egiten diren ikusteko aukera izanen da.

Gainera, asto, antzara, txerri eta txerrikumeak ere eramanen dituzte plazara eta txikienek behorak tiratutako gurdian ibiltzeko



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Taloak egiteko prozesu osoa nola egiten den ikusteko aukera izanen da, artaburutik hasita.

aukera ere izanen dute. 11:00etatik aurrera, eskualdeko VII. talo lehia-keta egingen dute eta taloekin egindako pinxoak ere prestatuko dituzte. 4-14 urte arteko haurrek ere izanen dute taloak egiten ikasteko aukera. 12:00etan herri kirol saioa izanen da, nesken harri jasotze erakustaldia eta aizkora saioa. 13:30ean artisauen produktu sorta bat zozketatuko da eta eskualdeko talo lehia-ketaren irabazlearen berri ere orduan emanen dute. Plazaolako lande-txe eta ostatuetako berzeroen artean egonaldi bat ere zozketatuko dute.

Arratsaldean berriz, 6etatik aurrera taloak egingen dituzte Saralegi eta Villabonatarrek. Ortzadar fanfarreak musika eskainiko du eta euskal dantzak eta erakusketak ere izanen dira plazan.

SAN MIGELTXOTIK LEITZARA KORRIKA

Mendi maratoi erdia ere egunen berean izanen da. Aurten ibilbidea aldatu dute eta helmuga Leitzako plazan izanen da. San Migeltxotik 10:00etan abiatuko dira korrikalariak eta bertara joateko autobus zerbitzua ere jarriko dute Leitzako kiroldegitik 09:00etan aterako dena. Leitzako plazara iritsi eta 13:00etan izanen da sari banaketa.

Proban parte-hartu ahal izateko aldeztu aurretik eman behar da izena internet bidez irailaren 17a baino lehen,

www.kirolprobak.com orrialdean.

Stock azoka 19an

Leitzako komertzianten elkarteak antolatuta stock azoka izanen da irailaren 19an plazan 10:00etatik 20:00etara. Parte-hartzaileak: Arizte-la, Olaia Bazar, Biok, Eder gunea, Garbi, Hernandorena, Kapritxo, Kullunka eta Leitza Kirolak.

KIROLA ETA FESTA

Kaskagorren pentatloia irailaren 26an egingen dute

Hutsik egin gabe, Kaskagorrek aurtengoan ere antolatu dute beren proba berezia, kirola eta festa lotzen dituen proba. Lastekertaren norabidea aldatuko dute gainera aurtengoan. Irailaren 26an, goizeko 9:30ean abiatuko dira Leitzatik Donostiarantz. Leitza-Ondarreta bidea bizikletaz egin, Donostian lasterka eta igerian ibili eta 14:30ean Egia-ko Arrano Elkartearen bazkalduko dute. Lehengo urtean 25 urte bete zituen lasterketa berezi honek eta aurten lehen aldiz izanen da Leitzan hasi eta proba Donostian bukatzen dutena.

HONDAKINAK

54 konpostagailu banatuko dituzte irail bukaeran

TTIPI-TTAPA

Mendialdea Mankomunitateak irailaren 20an ekarriko ditu herriarrek eskatutako konpostagailuak. 170 eskatu dira Mendialdea Mankomunitatearen esparru guztian eta horietatik 54 Leitzan. Konpostagailua jaso ondoren, luarra edo konposta behar bezala egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute irailaren 24an 18:30ean. Etxean sortzen diren zaborretatik zati handiena izaten da normalean organikoa eta ongarri moduan aprobetxatu daiteke. Modu honetan garraioa ekiditea lortzen da eta horrela, ingurugiroari mesede nabarmena egiten zaio. Gainera, zaborren kudeaketa ekonomikoki ere, bideragarriagoa izatea lortzen da. Konpostaren inguruan interesa edota zalantzak dituztenek ikastarora joateko aukera dute, ez da beharrezkoa konpostagailua eskatuta izatea.

Ba al zenekien

Txakurrei amorruren aurkako txertoa jartzeko aukera izanen dela irailaren 12an, 17:15ean. Landa industrialdeko aparkalekuan, Sakulu auzoko errepede ondoan.



ABELZAINZA → IRAILAREN AZKEN ASTEBURUAN

Pirinioko Behi aziendaren 28. Lehiaketa eta enkantea Elizondon

Baztango Aratxearen ibilbide gastronomikoa inauguratuko dute larunbat goizean

TTIPI-TTAPA

Pirinioko behi aziendaren nazio mailako 28. Lehiaketa-enkantea egingen da irailaren 26 eta 27an Elizondon, Baztango Udalak eta Aspina eta Conaspi erakundeek, bertze hainbat babesleren laguntzarekin antolatua.

Larunbat goizeko 9:00ak baino lehen sartuko dira aziendak eta ordu horretatik aitzinera hasiko dira txanda kalifikatzaileak. Lehenago, 08:30ean, Baztango Aratxearen ibilbide gastronomikoaren inaugurazioa egingen da. 17:30etik 20:00etara behi aziendaren erakustaldia eta txanda kalifikatzaileak egingen dira. Igandeko egitaraua-



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Pirinioko behi azienda onenak ikusgai izanen dira Elizondon.

ri dagokionez, 10:00etatik 14:00etara Baztango artisautza azoka egingen da. 11:30ean, Nafarroako aratxea eta Gorramendi gasna dastaketa. 12:00etan pintxo, salda eta busti lehiaketako sari banaketa egingen dute. 12:30ean behi-azienda enkantea eta 13:00etan azienda lehiaketaren sari eta garaikur banaketa egingen dute.

Ba al zenekien

Urtero bezala, Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztango herrietako eskoletako besta antolatu dutela. Aurten, Zigaren lekukoa hartuz, Arizkunean izanen da irailaren 27an, igandearekin.

Irailaren 25ean, ortziraletan, abelburuak Elizondoko Merkatuko Plazan sartzeko aukera izanen dute abeltzainen, arratsaldeko 3etatik aitzinera.

Hirugarren mailan

Baztan Futbol Taldeak ez dio ongi ekin denboraldiari, hirugarren mailarako itzulera. Jokaturako hiru partidak galdu egin ditu.

FLASH

Beltzean mintzo solasaldia

Nafarroa Oinezeko Txikian Handik antolatuta, Maddi Iñarrak eta Txema Abarretegik solasaldia eskainiko dute Arizkuneko hitzaldi aretoan irailaren 23an, asteazken arratsaldeko 7etan.

Poesia errezitaldia Iruritan

Idazleekin solasean ekimenaren baitan, Mikel Antzak argitaratu duen Ametsak ere zain poesia bilduman oinarrituriko errezitaldi sorta egingen dute irailaren 18an, ortziraletan 19:30ean Iruritan Jauregiarte taberna kulturean, Josu Landa (ahotsa), Gotzon Barandiaran (ahotsa eta gitarra) eta Itziar Castrillo (saxoa) artistekin.

2014ko udal kontuak ikusgai

2014ko udal kontuen espedientea publikoki ikusgai jarri du Balleko Etxeak, Joseba Otondo alkateak bando bidez jakinarazi duenez. Interesatuak kontu horiek begiratu ditzakete Balleko Etxean, hamabortz eguneko epean.

IRAILAREN 26AN

Errebestak ospatuko dituzte Oronozen

TTIPI-TTAPA

Ohiturari eutsiz eta betiko giro onarekin errebestak ospatuko dituzte Oronozen irailaren azken larunbatean. Egitaraua prest dute:

LARUNBATA, IRAILAK 26

- 10:30ean pala desafioa (Joseba Arizmen-di-Melo Berho/Josu

Goñi eta Joseba Berho)

- 12:00etan dispersioaren kontrako hitzordua eta ondotik triki-poteoa.
- 14:00etan zikero jatea bixente akordiolariak alaiturik.
- 20:00etan herri kirolak
- 22:00etan luntxa.



BAZTAN

GIZARTEA → UDALA ETA GOBERNUAREN BILKURA

Uberroek eragindako kalteez eta bertze zenbait aferetaz aritu dira

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiarekin bildu ziren alkatea eta herri-lanetako zinegotzia

TTIPI-TTAPA

Joseba Otondo alkatea eta Florentino Goñi herri-lanetako zinegotzia, Xabi Lasa Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko zuzendari nagusiarekin bildu ziren abuztuaren 31n. Iruñean egindako bilkuran Baztanen egiteko dauden hainbat lanetaz aritu ziren.

Modu horretan, 2014ko uztailako uberroek sortutako kalteez mintzatu ziren eta orduz geroztik, onartutako urgentzia duten sei bideren konponketa egiteko dagoela: Elizondoko Karakotxeko eta Pariseneko bidea, Bear-tzunen Ueneko bordatik Urruxkarat doan bidea, eta Uenenerat doana; Haldi benta, Arizkungo Domitxeneko bordako bidea eta Erratzuko Xixperriko bordako bidea. Bide hauek egiteko Nafarroako Gobernuak berez %70eko laguntza eman behar-

ko luke, gainerakoa Baztango udalaren eskuetan geldituz. Udalak bideen memoriak 2014ko urrian aurkeztu zituen. Sei bideen konponketak 130.000 euro inguruko kostua du. Bertzalde, aurtengo otsailean Aritzakun-Urritzate aldeko Urbakura ondoko parajeen erauntsiek lur-mendia egin eta, orduz geroztik bidea hetsia dago. Abuztuko hondar eguneko bileran udalak kontratatutako ingeniariak egindako proiektua zuzendari nagusiari aurkeztu zitzaion eta tokia bisitatzeko gonbidapena ere egin. Proiektuaren kostua 150.000 euro ingurukoa da.

BERTZE AFERAK

Amaiurko ur-arazoei buruz ere aritu ziren, gainerakoan. Iturburutik depositorat doan 3 kilometroko hoditeria aldatu beharra dago (250.000 euro). Proiektu hori egiteko lurra ireki behar denez, base-rietarat ura eramateko bertze hodi bat sartzea ere aurrirakosten da. Iruñean, bertzalde, alde baretetik Iruñita-Lekaroz urhorniduraren 3. fasea egiteko dagoela aipatu zuten, 240.000 euro ingurukoa. Nolanahi ere, oraingo depositorearen kudeaketa hobetzeko



ARGAZKIA: JM ONDIKOL

Candida Jauregi, mendea bete duen lehenbiziko amaiurtarra

1915eko irailaren 3an jaio zen Candida Salaberriko bordan. 100 urte bete ditu eta Amaiurren mendea bete duen lehenbiziko emakumea da. 1952an ezkondu zen Joxe Inda Maritorenarekin eta Arginenea etxea izan zuten bizileku. Bertan bizi izan da geroztik, nekazaritazatik atereaz eguneroko ogia. Lau seme-alaba izan zituzten: Maritxu, Fermin, Belen eta Felix. Zazpi biloba eta birbiloba bidean da. Candidak osasun eta memoria ona ditu eta bere urtebetetzea lagun eta familiakoekin ospatu zuen. Bertsoak abesten ere aritu zen!

Iruritan dagoen depositoan presioa hausteko arketa egitea galdegin zuten (6.000-10.000 euroko aurrekontua). Xabi Lasa zuzendari nagusiak hiru asteren buruan edo erantzunen duela erran zuen. Bertzalde, Baztango ordezkari Toki Administrazioiko inbertsioak arautzeko 2016-2017 urtetarako trantsizio plana prestatzen ari direla jakinarazi zuten eta bi-urteko horretan larritasunezko lanak eta helburu sozialekoak bakarrik onartuko dituztela.

IRAILEKO AZKEN ASTEBURUA DANTZAZ BETEA

Dantzari Eguna, Pirinioetan dantzan eta Mutildantza Eguna datoz

TTIPI-TTAPA

Dantza maite duenarentzat asteburu polita izanen da irailaren hondarrekoa. Irailaren 26an, larunbat eguerdian, Dantzari Eguna ospatuko dute Irurritako plazan. Egun berean, arratsaldeko 5etan Pirinioetan dantzan jaialdia eskainiko dute Arizkuneko Itsasuko Ataitze, Paueko Menesters gascons, Larraineko dantzariak, Gallartako Harrigorria eta Baztango Baztandarrak dantza taldeek. Biharamunean, igande eguerdian Mutildantza Eguna antolatu du Jo ala Jo kultur elkarteak Elizondon. Emanaldien ondotik dantza irekiak izanen dira nahi duten guztiendako.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

GIZARTEA → IRAILAREN 17 ETA 18AN

Bizikleta mugikortasuna bulkatzeko ekintzak egingen dituzte Elizondon

Solasaldia ortzegunean eta bizikleta itzulia ortziralean

TTIPI-TTAPA

Irailaren erdialderako Baztango udalak, Elizondoko Herriak, Elizondoko eskolak, Baztan Ikastolak, Elizondoko lanbide eskolak eta Elizondoko eskolako eta Baztan ikastolako guraso elkarteak eskolarat oinez eta bizikletan joaterat animatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte.

Irailaren 17an, Txirinka elkarteko Daniel Enparantza oñatiarrak, *Oñati: hamarkada bat bizikleta mugikortasuna eta oinez ibiltzea bulkatzeko solasaldia* emanen du. 19:30ean Arizkune-

nea kultur etxean. Irailaren 18an, Elizondoko karrketan barna bizikletaldia edo bizikleta itzulia egingen da. Elizondoko plazatik abiatuko dira 18:00etan. Tenore berean erreboteko plazan ttikienendako bizikleta jinkana jokoak izanen dira. Ondotik denendako txokolatada.

Ikasturte hasiera honetan asteazkenak ikasleak eskoletarat autorik erabili gabe joateko egun gisa landuko dituzte.

IRAILAREN AZKEN ASTE HONDARREAN ETA URRI HASIERAN

Hegaztien jardunaldiak antolatu dituzte Iruritan

TTIPI-TTAPA

Hegaztien Jardunaldiak antolatu dituzte Iruritan Baztango Udalak eta Navarra al natural erakundeak.

Irailaren 26an, larunbatean

19:30ean, Joaquin Araujoren *El placer de observar* eta Juan Goñiren *Los bosques que llevo dentro* liburuak aurkeztuko dituzte eta olerki eta musika gau-ekitaldia Radio Vitoriako Patricia Fur-



ARGAZKIA: JOSEBA OTONDO

28 pertonek hartu dute parte nekazaritza ekologikoko udako ikastaroetan

Baztango udalak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolaturik egun hauetan "Tokiko elikadura sistema eta nekazaritza ekologikoa" udako ikastaroa egingen ari da. Denera hogeita hamar ikasle izena ematen dute gehienak baztandarrak baina eskualdekoak, iruñerrikoak, peraltakoak, tolosakoak eta bilbokoak ere bai. Hortaz, ikastaro honek bere lehendabiziko edizioan paratutako helburuetako bat lortu du: Euskal Herri mailan proiektzioa izatea eta eskualdez kanpoko jendea etortzea. Nolanahi ere, helburu nagusia Baztanen tokiko garapeneren ikuspegitik abiatu den eztabaidan ekarpen berria egitea zen eta ildo horretan, ikastaroa aski aberasgarria izaten ari da. Izan ere tokiko elikadura sistemek bertako ekonomia indartzeko aukera ematen dute. Ildo horretan lurrari, bertako kulturari eta jendartearen beharrei lotutako nekazaritza ekologikoa etorkizuneko bidea izaten ahal da. Horretarako herritarrak, ekoizleak eta tokiko erakundeak antolatzea beharrezkoa da.

long eta Joaquin Vitoria musikari eta musikagilearen eskutik osatuko da.

Irailaren 27an, igandean 18:00etan, *Natura: contemplar, comprendes, conservar* hitzaldia emanen du Joaquin Araujok.

Urriaren 2, 3 eta 4an jardunaldietan ekitaldi gehiago antolatuko dira.

 **arteka 20th**
arkitektura eta zerbitzuak



www.artekabaztan.com

Balda medikua plaza 1- 1A 31700 Elizondo. Nafarroa 948 580 610

BAZTAN

UDALA → EH BILDUK BAKARRIK BOZKATU ZUEN KONTRA

Herriko seme kuttunen argazkiak Balleko Etxeko hormetara itzuli dira

UPNren mozioaren alde bozkatu zuten Baztango Ezkerrak, Geroa Baik eta Baztan Auzolanean-ek

TTIPI-TTAPA

Herriko lau seme kuttunen argazkiak berriz ere Balleko Etxeko hormetan zintzilikatu dituzte. Hain zuzen, Mariano Izeta euskaltzalea, Elizondoko abesbatza sortu zuen Juan Eraso, Iruñeko alkate eta Nafarroako diputatu izan zen Miguel Javier Urmeneta eta aita Eulogio Zudaire kaputxinoaren argazkiak dira paratu direnak. Duela bi urte kendu zituzten erretratoak,



Urmeneta, Zudaire, Eraso eta Izetaren erretratoak zintzilikatu dituzte berriz Balleko Etxean.

baina oraingoan, berriz ere jartzeko UPNk aurkeztu zuen mozioa. UPNko lau zinegotzietz gain, Baztango Ezker-rakoko biek, Geroa Baik eta Baztan Auzolanean taldekoak

eman zioten baiezkua. EHBilduk bakarrik bozkatu zuen kontra.

Aurkako boza arrazoitzeke EHBilduk bidalitako oharrek dioenez, «herritarrak mailakatzea egintza zalan-

tzagarria da. Herri bat herritar guztien parte hartzearekin egiten da eta bakoitzak, bere ezaugarri eta ahalmekin ekarpena egiten du». EH Bilduren erranetan, «aitorpena me-

rezi duten jendeen aitorpena ez da argazki batekin egiten, halako mezimendua ekarri zien lanari jarraipena emanaz baizik. Zuetako zenbatek irakurri duzue *Dirua galgarri*, *Baztango kontuak*, *Nigarrez sortu nintzan?* edo *Baztango Hiztegia* erabili? Zenbat egon zineten iaz egin zen Euskal Herriko bertso txapelketako Elizondoko final-aitzinekoan? Zergatik aurkeztu duzue mozioa erdaraz?». Azkenik, baztandarren erdia bertzerik ez diren gizonezkoek argazkien protagonismo publikoaren osotasuna hartzen dutela eta, «non dauden andreak» galdetzen du EHBilduk, «Baztan denen artean egiten badugu, udalak horren guztiaren erakusgarri izan behar du».

ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

IRAILAREN 20AN

Errotaren Eguna Amaiurkoan ospatuko dute igandean

TTIPI-TTAPA

Aurten eskualdeko Errotaren Eguna Amaiuraren antolatuko da, Baztango Udalak eta Amaiurko Errotak bul-tzaturik.

Programa zabalean ageri diren ekitaldiekin batera, egunean zehar erroten tresnen inguru-

ko erakusketa eta animazioa Txanbezpel Ipar Euskal Herriko musikarien eskutik izanen dira.

IGANDEA, IRAILAK 20

- 10:00etan irekiera ekitaldia. Txistulariek la-gunduta.
- 10:00etatik 13:30era

Artisautza eta Baztango produktuen azoka.

- 10:00etatik 12:00etara gidaturiko bisitak erroten (doakoak)
- 12:00etan Baztango errotei buruzko diaporamaren aurkezpena eta hitzaldia
- 13:00etatik 14:30era Talo dastaketa erro-



- tan (doakoa).
- 15:00etan Bertako arto hazien trukaketa
- 17:00etan guztionda-

ko dantza herrikoiak (muxikoak, zazpi-jauzi, txapeloak, larrain dantza).

Mármoles SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444
M. 629 659 583
ARIZKUN

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONOS - MUGAIRI

GIZARTEA → HARROBIA BI URTEZ ITXIA EGON ZENEAN ERE ENPRESAK FUNTZIONATZEN SEGITU ZUELA DIO PLATAFORMAK

SOS Alkerdi: «Lantegiaren produkzioaren %10 bakarrik ateratzen da Alkerditik»

Halere, bere elkartasuna aierazi die Mármoles de Baztan enpresako langileei

TTIPI-TTAPA

SOS Alkerdi Plataformak, prentsan azaldutako azken berrien ondorioz eta Nafarroako Gobernuako Ekonomia-Garapen Departamentuarekin izandako lehen bileraren ondoren, bere solidaritatea erakutsi nahi die Mármoles de Baztan enpresako langileei, "jasan behar duten lan erregulazio, mehatxu eta kaleratzeen inguruan.

Enpresak erabaki hau baieztatzen du arrazoituz Urdazubiko harrobian 3.000 kiloko leherketak aurrera eraman ezin izanaren ondorioa dela, baina SOS Alkerdik dioenez, «kontutan hartu beharrekoa da Mugairiko zatitze eta prestatze plantak bertze harrobietan erositako %90eko harriarekin egiten duela lan, Alkerdiko harria %10ekoa soilik izanik. Gaineratu beharra dago 2009tik 2011ra harrobia itxita egon zela eta enpresak funtzionatzen



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Nafarroako parlamentariak ere bixita egin diote aurten Alkerdiko harrobiari, udal ordezkarien, SOS Alkerdiko eta lantegiaren gidaritzapean.

jarraitu zuela». Datu hauetako Ekonomia-Garapen Departamentuko espedienteetan islatzen dira eta enpresak berak utzitakoak omen dira, nahiz eta enpresako zuzendaritzatik Ttipi-Ttapa egin dako adierazpenetan, produkzioaren zatirik handiena Alkerditik ateratzen dutela eta horiek ustiatu ezinean, lantegiaren bideragarritasuna ezinezkoa dela erran.

Nafarroako Gobernuak joan den abuztuaren 24an deitutako bilerari dagokionez, SOS Alkerdi Plataformari deigarria iruditzen zaio «bilera Iñaki Morcillo Jaunak deitua izatea, Industria,

Energia eta Berrikuntza Orokorreko zuzendaria hain zuzen, berak onetsitako leherketa-espedienteen tramitazioen legalitatea defendatu zuenak. Ezarpen horiek ingurugiroari eta Hirigintzan egindako arau hausteengatik isunak aplikatzea ekarri dio Mármoles de Baztan enpresari».

Bertzalde, irailaren 1ean izan zen bilkuran mehatze espedientearen tramitazio administratiboa soilik landu zen. Bilera horretan onartu zen 2012an onartutako leherketen plana aurrera ateratzerakoan ez zela ondare arkeologikoa

kontutan hartu, eta horrek Alkerdiko labarretako artearen suntsitzea ekar dezakeen. «Inoiz ez zen era ofizialean ziurtatu Nafarroako Paleolitiko garaiko hormako arte ezagun bakarraren segurtasuna», dio SOS Alkerdiren oharrak.

Foru administrazioak ustiapen espedientearen tramitazioa legala izan zela babestu zuen, nahiz eta Mármoles de Baztan enpresak zigorrak jasotzea suposatu, «berorren inplantatzeak ingurugiro eta hirigintza arloko lege hausteengandik».

Sos Alkerdi plataformak bertze bilera bat

proposatuko du harrobiaren aktibitate aldaketak eta 3.041 kilo arteko leherketek ondare arkeologikoan duten eragina aztertzeko. 1996ko martxoan harrobiak bibrizio gutxien sortzen duten teknikak erabiltzeko baldintza eta 1999an Nafarroako gobernuak erabakirikoa leherketen debekua zertan geldituko diren jakin nahi du Plataformak.

DEBEKUA

Udalak 2014ko uztailearen 23an debekatu zuen Alkerdiko harrobian inolako leherketarik egitea, inguruan eta ondare historioetan sortzen ahal dituzten kalteengatik. Geroztik, iritzi berekoa agertu zen Nafarroako Gobernuarekin.

Kultura Zuzendaritza Nagusia-Bianako Printzea erakundeak Alkerdiko harrobian leherketa eta zulatze lanak egiteko behin behineko debekua kentzearen kontra azaldu zen, Nafarroako Gobernuak berak eskatutako txosten teknikoa oinarri. Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Jose Maria Garcia de Miguel katedradunak sinatutako idatziak zioenez, «ezin da inondik inora segurtatu leherketek leze horietan kalterik eragingen ez dutenik».



6
LOTE
ZOZKETATUKO
DITUGU
urtean zehar



Zalain Ind. (31780) | BERA
T 948 625 016 | F 948 625 036
martiko@martiko.com
www.martiko.com



ZUGARRAMURDI

KULTURA → URRITIK EKAINERA IKASTAROA

Helduak eskuaraz alfabetatzeko aukera eskainiko dute

Beñardo Goietzek emanen ditu klaseak larunbat goizetan

Margari eta Koro

Ikasteko kontuak ez dira behin ere finitzen. Seguraski 25 urtetik goitiko zugarramurdiar gutti izanen dira euskaraz behar den bezala irakurri eta idazteko gai direnak, batez ere beren eskolatzea gaztelaniaz egin zutelako.

Beraz, euskaraz alfabetatzeko aukera dugu orain, urritik hasi eta ekainera arte klaseak emanen direlako.

Klaseak larunbat goizetan izanen dira eta in-

teresatuta daudenak telefono honetara deitu beharko dute: 678 28 96 16 (Marifa). Klaseak Beñardo Goietzek emanen ditu.

Mendialdea traktorean ezagutzen

Hainbertze bisitarien artean, denon arreta bereganatu duen bat etorri zaigu: Aranaratzeko Joxe Manuel Iparragirre. Joxe Manuelek traktoreak kolezionatzen ditu, 30 baino gehiago omen dauzka. Eta ilusio berezi bat du hil baino lehen: Nafarroako iparraldea ezagutzeko. Horretarako berak prestatutako traktore eta erremolke berezi batean martxan abiatu zen abuztuaren 23an eta bi egunen buruan Zuga-



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Ximiko-berriz hasi dute ikasturtea eskolan

Ximiko-berriz hasi dute ikasturtea Zugarramurdiko eskoletako haurrek, teiltatu eta portxe berria estreinatuko baitute. Eskola hau 1958-1959 urte inguruetan egin zen, lehenengo Ixtilartea etxea bota ondotik. Beraz, teiltatuak 50 urte pasa iraun du eta espero dezagun orain estreinatzen den honek ere bertze hainbertze irautea. Lanek 50.000 euroko aurrekontua izan dute.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Joxe Manuel Iparragirreren traktore dotorea, Nafarroako mendialdea ezagutzeko ibilgailua.

ramurdin genuen (25 omen ditu). Gero he- siagatik Erronkari alde- kilometro orduko egiten mendik abiatu eta Arte- ra joan zen.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
09:00etatik
02:30era

Dantxarineatik
2 km.tara

PLATER KONBINATUAK · OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ · PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA · URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA Dantxarinea 31712 URDAX Ibañin 31780 BERA Luzaide 31660 LUZAIDE

tabac prêt à po... restaurant super... tabac cadeaux maroquinerie

GIZARTEA → UZTAILEAN BAINO 13 GEHIAGO

Eskualdean 994 langabetu zeuden abuztu hondarrean

Azken urte
erdian lehen
aldiz egin du
goiti

TTIPI-TTAPA

Azken urte erdiko joeraren kontra, langabeziak zertxobait goiti egin du eskualdean abuztuan. Zehazki, uztailean baino 13 langabetu gehiago daude, 994 denera. Nafarroa osoan, banaz bertze %1,33 egin du beheiti langabeziak, baina Doneztebeko bulegoan %1,33 goiti egin du.

Abuztuan 606 kon-

tratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 19 bakarrik izan ziren mugagabeak, aunitz uda parteko lanak direla nabarmenduz.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 425 lagun daude langabezian, uztailean baino 8 gehiago. Adin tarte horretako emakumeen artean, uztailean baino 2 langabetu gehiago daude, 494. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean, aldiz, uztailean baino 3 langabetu guttiago daude, 36 denera, eta adin tarte hor-

LANGABEZIA-DATUAK HERRIKA | 2015eko abuztua

Herria	Populazioa 2014	Lanik gabe guztira	Langabezi-prestaziorik kobratzen dute?	
			EZ	BAI
ARANO	111	5	3	2
ARANTZA	629	16	6	10
ARESO	266	6	3	3
BAZTAN	7.848	264	144	120
BEINTZA-LABAIEN	234	11	5	6
BERA	3.760	136	73	63
BERTIZARANA	602	34	20	14
DONAMARIA	456	16	8	8
DONEZTEBE	1.644	91	61	30
ELGORRIAGA	226	11	8	3
ERATSUN	160	8	4	4
ETXALAR	819	27	11	16
EZKURRA	152	9	3	6
GOIZUETA	747	32	17	15
IGANTZI	625	11	4	7
ITUREN	525	28	19	9
LEITZA	2.906	122	68	54
LESAKA	2.742	101	54	47
OIZ	140	2	1	1
SALDIAS	118	7	5	2
SUNBILLA	650	27	15	12
URDAZUBI	392	7	2	5
URROZ	179	6	3	3
ZUBIETA	319	13	10	3
ZUGARRAMURDI	225	4	3	1
Denetara	26.475	994	(%55,33) 550	(%44,66) 444

retako emakumeen artean 6 langabetu gehiago daude, 39 denera.

Zerbitzuen arloa da langabetu gehien duena eta abuztuan 6 gehiago ditu gainera (688). Industrian ere uztailean baino 10 langabetu ge-

hiago daude, 136 denera. Eraikuntzan uztailean baino langabetu bat gehiago dago, 91 denera. Nekazaritzan uztailean baino 3 langabetu gehiago daude, 28 denera, eta aitzinetik lanik egin ez dute-

nen artean, aldiz, 51 lagun daude langabezian, uztailean baino 7 guttiago.

Aipatzekoa da gehiago direla langabezia-prestazioa kobratzen ez dutenak (%55,33), kobratzen dutenak baino.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA) | DONEZTEBE (SAN PEDRO)
ELIZONDO (BAZTANDARRA) | ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

SARA

KULTURA → URRIAREN 4AN

Lehen aldiz Kantarien Eguna antolatu dute Pleka trinketean

Sarako kantariak elkarteak egin du gomita

Joana GERENDIAIN

Sarako kantariak elkarteak kantuaren eguna antolatuko du lehen aldikoz. Ekitaldia urriaren 4ean iraganen da Pleka trinketean. Elkar-
teak gomita zabaldu die ondoko herriko kantu taldeei, bakotzak 7 kantu prestatu beharko ditu eta bertsu bat asmatu *Aita semeak* airearekin bazkaria alaitzeko gisan. Kantuak entzu-

ten ahalko dira goizeko 11:30etik goiti, ondotik zintzur bustitze eta bazkari bat izanen dira. Bistan da egun hori deneri irekia da, bazkarirako txartelak (23 euro) trinketean eta herriko etxeko edantegian salgai izanen dira edo txeke bat igortzen ahal da trinketera lagun kopurua zehaztuz. Izen emaitako azken epea irailaren 27ra finkatua da.

Kontrabandisten lasterketa

30 korrikalari abiatu ziren plazatik abuztuaren 30ean, 8.4 kmko kontrabandisten laster-



ARGAZKIA: PIERRE EZCURRA

Hirugarren izan zen David Nesprias saratarra, herrira ailegaterakoan.

keta gainditzeko. 30 korrikalarien artean 3 neska aurkitzen ziren eta 4 saratar. Zortzigarren aldikoz Fernando Etxegarai beratarrak irabazi du itzulia 41 minutu eta 53 segundotan burutuz, 2. Asier Apezetxea etxalartarra (44'02) eta 3. David Nesprias saratarra (44'41). Jean Michel Goyeneche 22. ailegatu da (56'19). Lehen neska Lurdes Oiarzabal izan da (55'19), 21.a sailkapen orokorrean; hurbiletik, 26. Pantxika Gaiotchea ailegatu da

(59'14) eta 28. Claire Grillard (1'05'05). Jen-
de multzo polit bat hurbildu da plazara lasterkariak txalokatzeko eta sarien banaketa ikusteko, Olhain ikastolak ostatu bat muntatu zuen eta taloak saldu.

Lizarietako besta

Urtero bezala iraila bukaeran Lizarietako besta ospatuko da Sarra eta Etxalarko herrien artean. Horren karietara ekitaldi ezberdinak antolatuko dira. Bi herri-
ritako ekoizle eta arti-

sauen merkatua egingen da, denbora berean Sarako Ondareak elkarteak egindako *Usoak sarean* erakusketa ikusten ahalko da. 10:30ean bo-
te luze partida bat jokatuko da eta 11:15ean karrote lehiaketa. Eguerditan uso ehizari buruzko akordioa izenpetuko da Sara eta Etxalarko herrien artean eta ondotik bi herriak sokatiran desafiatuko dira. Arratsaldeko 2:30ean zikiro bat antolatu da lepoan Saranga txaran-
gak alaitua.

Rekordatorioak egiten ditugu

ttipi-ttapa
Koskontako Bidea, 7-1
LESAKA | 948635458

Jose GOIA ETXEBERRIA
Lesakakoa, 2015eko irailaren 2an, 82 urterekin

Urak dakarrena urak daroa zuk emandakoa gurekin gelditzen da.

MARTXANPAITA, PEURAN ETA BIURGARAIIKO FAMILIA

Saioa TELLETXEA ZUBELDIA
Igantzin, 2013ko irailaren 17an

Bi urte joan zinela baina gure bihotzetik ez zara behin ere joango. Maite zaitugu.

ZURE FAMILIA



ZURE OSPAKIZUNETARAKO BEHAR DUZUN GUZTIA

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425

EZKONTZAK

Urko Olano Zabaleta eta **Lierni Garmendia Kortajarena**, Leitza eta Zizurkilgoa, uztailaren 26an.

Iruñe Bazterrika Etxenike eta **David Perurena Aioroa**, Iturengoak, abuztuaren 14ean.

Lenin Gonzalo Nuñez Reyna eta **Elena Mihaleña Miulescu**, Ecuador eta Errumaniakoa, Lesakan abuztuaren 22an.

Vicente Luis San Martín García eta **Maria Elena Nagore Extremado Villaba**, Iruña eta Doneztebekoa, Donezteben irailaren 4ean.

Haritz Arriola Capdequi eta **Laura Apeztegia Gonzalez**, Sunbilla eta Doneztebekoak, Donezteben abuztuaren 1ean.

Martin Subizar Garralda eta **Maite Lakar Iraizoz**, Legasa eta Elizondokoa, irailaren 7an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Naroa Elizalde Mariezkurrena, Zubietakoa, abuztuaren 30ean.

Beñat Almandoz Susperregi, Lesakakoa, abuztuaren 21ean.

Enai Elizaga Matxiñena, Doneztebekoa, abuztuaren 15ean.

Libe Agirre Salaberria, Doneztebekoa, abuztuaren 17an.

Iñigo Telletxea Martikorena, Doneztebekoa, abuztuaren 19an.

Kaiet Villanueva Andueza, Doneztebekoa, abuztuaren 29an.

Enara Subizar Lakar, Legasakoa, abuztuaren 18an.

Maren Mariñelarena Elizalde, Legasakoa, abuztuaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

t tipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Eustaquio Santesteban Mutuberria, Zubietakoa, abuztuaren 28an, 97 urte.

Jose txo Igoa Altzugarai, Lesakakoa, abuztuaren 29an, 81 urte.

Jose Goia Etxeberria, Lesakakoa, irailaren 2an, 82 urte.

Benita Leiza Ducaz, Arantzakoa, abuztuaren 30ean.

Maria Pilar Villanueva Illarregi, Lesakakoa, abuztuaren 31n, 81 urte.

Telesforo Landa Arraztoa, Almandozkoa, irailaren 1ean, 81 urte.

Jose Maria Begino Iraizoz, Igantziakoa, irailaren 5ean, 88 urte.

Jose Moreno Ruiz, Lesakakoa, irailaren 7an, 94 urte.

Pilar Irungarai Juanikotena, Erratzukoa, irailaren 8an, 97 urte.



Pellika MEOKI ARIZTIA

Lekaroz-Baztanen, 2015eko abuztuaren 22an

*Mila lore gorri
andre errebeldea
mila lore gorri
langile eta euskaltzalea.*

BAZTANGO SORTU



Patxi ARBURUA MIHURA

*Joan omen zara.
Hala diote. Hala diogu.
Halere, batzuk ez dugu hala uste.
Ez zaitugula lehen bezala ikusten?
Baina zure erranak eta zure emanak
gurekin ditugu. Gurekin eta bertze
aunitzekin. Eta luzerako, gainera.
Horrela nahi baitugu. Eta horrela
espero dugu. Zure erran eta eman
horiek beharrezkoak zaitzugu.
Milesker, Patxi*

ETXALARKO ZURE LAGUNEK

Patxi ARBURUA MIHURA



**ETXALARKO
EZKER ABERTZALEA**

KIROLA → ABUZTUAREN 30EAN

800 heldu eta gaztetxo baino gehiago Oinez eta Lasterka eskuararen alde


300 lasterkarik eta 477 ibiltarik hartu zuten parte proban

TTIPI-TTAPA |

Abuztuaren 30ean, goizean goizetik, ehunka lagun bildu ziren Elizondoko plazan Nafarroa Oinezaren aldeko mendi ibilaldi eta lasterketan parte-hartzeko. Baztango mendietan barna eta Aldude zeharkatuz, 27 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten parte-hartzaileek, 1.661 metroko desnibela gaindituz. Elizondotik abiatu eta Larramendi, Urballo, Albako Harria, Belaun, Aldude, Berdaitz, Basabar, Burga, Maulitz, Atzarreta eta Intzuritik pasa ondotik, Elizondon bukatu zen ibilbidea.

Lehenengo mendigoizaleak goizeko 7etan abiatu ziren oinez. Guztira 470 lagunek heldu zioten Baztan eta Aldude mendietan zehar antolatutako ibilaldiari. Ibilbide luzeaz gain, 23kmko ibilaldi ttipia ere izan zuten aukeran. Lasterkariak, berriz, 300 denera, goizeko 9etan ekin zioten 27kmko korrikaldiari. Aipatzekoa da kirolarien artean, Baigorri, Orzaize, Lesaka, Bera, Altsasu, Lodosa, Tafalla eta Baztan ikastoletako zenbait ordezkarri binaka lasterka aritu zirela.

Mendizaleak mendi gaintan zeuden bitartean, etxeko lasterkari ttipiek hartu zituzten Eli-



ARGAZKIAK: TOTU ITURZAETA

Irteera Elizondon, ibiltari batzuk korrikalarietara egin zieten arku eta kirolari erreldoa.

zondoko karririk. Ehun haur eta gaztetxo inguruk adinka antolatutako lasterketan parte hartu zuten, Zangotxo, Nafarroa Oinezeko mas-kotarekin batera.

Goizeko 11etatik aitzin, tantaka-tantaka helmugara iritsiz joan ziren parte-hartzaileak ikusleen txalo zaparrada artean. Ibilbidea oinez burutu zuen lehenbiziko gizonezkoa Oskar Torres izan zen eta lehenbiziko emakumea Kontxi Bikondoa. Lasterka aritu ziren mutilen artean, Jokin Lizeaga, Iban Letamendi eta Iker Carrera izan ziren hiru lehenak eta nesken artean, lehendabizi Mónica Telletxea helmugaratu zen eta ondotik, Irene Guembe eta Rafaela Ciavola iritsi ziren.

Goiz eder eta hunki-garriari akabaila emateko, 600 lagun bildu ziren Elizondoko Merkatu zelaian bazkaltzeko eta ondotik sari bana-keta burutu zen.

LARUNBATEAN ADITUEKIN SOLASALDIAK

Abuztuaren 29an, probaren bezperan, Arizkunenean hitzaldiak antolatu zituzten. Jon Garraus adituak elikadura eta hidratazioaren inguruko aholkuak eman zituen eta Jokin Lizeagak, mendi lasterketan prestatzaile fisikoak, eta Iñigo Mugikak, lehiaketa aitzineko zorroketan aditu, solasaldi interesgarriak eskaini zituzten igande honetan burutu berri den probari begira.

KIROLA → ZORTZIGARRENEZ

Etxegarai garaile Sarako Kontrabandisten lasterketan

Lourdes Oiarzabal izan zen lehenbiziko emakumea

TTIPI-TTAPA

Termometroak urtu beharrean, 8 kiloko zama bizkarrean eta 43 urte soinean... baina, bertze behin ere, Larungo maldetan goiti parekorik ez duela erakutsi zuen Fernando Etxegarai. 41 minutu eta 53 segundo behar izan zituen beratarrak ibilbidea osatzeko. Emakumeetan, Luzaideren or-

dezkarri, Lezoko Lourdes Oiarzabal izan zen lehenbizikoa (55:19).

30 korrikalarik hartu zuten parte abuztuaren 29an Sarako Kontrabandisten lasterketan. 8,4 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten, tartean, Zazpi Fagoko gainera igoz. Gainera, ibilbidearen hasierako eta bukaerako metroetan zakua bizkarrean eraman behar izan zuten. Gizonezkoek 8 kiloko zakua eta emakumezkoek 4 kiloko. Ez da hau probaren berezitasun bakarra, galtza urdinak eta kamiseta



ARGAZKIA: XAGU

Gizonezkoen podiuma eta Lourdes Oiarzabal, emakume irabazlea.

txuriarekin ateratzea ere ezinbertzekoa baita.

ETXEGARAI NAGUSI

2006an ezarri zuen errekorretik urrun (38:36) baina, Fernando Etxegarai beratarra izan zen helmuga zeharkatzen lehena (41:53). Etxalarren izenean korri egin zuen Asier Apezetxea arantzarra izan zen bigarren (44:02) eta Sarako David Nesprias hirugarren (44:41). Emakumeetan lehenbizikoa Luzaiderekin Lourdes Oiarzabal izan

zen, 55 minutu eta 19 segundoko denborarekin. Bere gibeletik, Baigorriko Pantxika Gaicotchea (59:14) eta Urdazubiko Glaire Grillard (01:05:05) iritsi ziren helmugara. Mikelperitzena beratarrak eman zuen eguneko bertze albiste, helmugara 16. iritsi ondotik erdi-zorabiatuta eta indarrrik gabe bukatu zuen proba eta medikuek badaezpada helikopteroari deitu zioten Baionako hospitalera eraman zezaten.

PARTE-HARTZE SISTEMA

Lasterketako antolatzaileek errekarren bialdeetako lasterkariak gonbidatzen dituzte, 18 herriren ordezkari izateko. Gehienez ere bi lasterkari har dezaket parte herri bakoitza ordezkatzu. Baina, gonbidatutako herri bateko inork ez badu izenik ematen eta gonbidatua den bertze herri batetik bi lasterkari baino gehiago baldin badaude, hauek ordezkari ez duen herriaren izenean ateratzen dira.

HERRI KIROLA → HERRI KIROLLEN OLINPIADA IRAILAREN 19AN

Euskal Herrialdeen arteko kirol txapelketa larunbatean Elizondon

Eskualdeko hainbat kirolari Nafarroarekin ariko dira

TTIPI-TTAPA

Euskal Herrialdeen arteko herri kirol txapelketa irailaren 19an, larunbat arratsaldeko 5etatik aitzinera jokatu da Elizondoko Laxoa plazan edo, euria egiten balu, Baztan pilotalekuan. Herri kirolen

olinpiada honetan, Euskal Herriko herrialde gehienek parte hartuko dute, hamar herri kirolatan. Sarrera, 5 euro ordaindu beharko da.

Sokatiran, 640 kiloko kategorian lehiatuko dira eta Lesakako Beti Gazte izanen da Nafarroako ordezkaria; lotkotx biltzen, 1,25 metro jarraitako 50 lokotx biltzeko beharko dituzte (Berriozarko Eder Goldarazena ariko da); ingude altxatzean, 18 kiloko in-

gudeari ahalik eta altxal-di gehien eman beharko dizkiote minutu eta erdian (Josetxo Urrutia leitzarra); lasto altxatzen, 45 kiloko lasto-fardoa ahalik eta gehien altxatu beharko dute bi minutuz (Amairuko Iñigo Goienetxe); harrijasotzen, 100 kiloko harria ahalik eta gehien altxatu beharko dute bi minutuz (Xabier Ariztegi Santxin etxalartarra ariko da); txinga-eruten 50 kiloko txingekin ahalik

eta plaza gehien egin beharko dituzte (Miel Angel Sukuntza leitzarra); orga jokoan ahalik eta bira gehien eman gurdiari (Iruñeko Albaro Zugarrondo); zaku lasterketan, 80 kiloko zakuarekin 360 metro egiten dituzte hiru kirolaririk txandaka (Berriozarko Oier Aizkorbe, Oskar Aguas eta Carlos Santamaria); trontzan, etzanda jarritako 45 ontzako enberrari hamar ebaketa eman beharko dizkio-



te (Ultzamako Mikel Eugu eta Julen Kañamares) eta aizkoran 45 ontzako lau enbor moztu beharko dituzte (Donato Larretxea arantzarra izanen da ordezkaria).

irailak 17 - urriak 1

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eu edo 948 63 54 58

Kontzertuak



BERA | 2015.09.27

XXXIII. BTT mendi bizikleta ibilaldia

Gure Txokoa elkarteak antolatuta, bi ibilbide izanen dira aukeran bata luzeagoa eta bertzea laburragoa. Goizeko 9etan izanen da irteera.

Ospakizunak



ELIZONDO | 2015.09.27-28

Behi-azienda piriniotar hobereenen bila Elizondon

28. lehiaketa-enkante nazionala eginen dute Merkatuko plazan. Baztango aratxearen ibilbide gastronomikoaren inaugurazioa ere ekitaldien baitan izanen da.

Ospakizunak



LEITZA | 2015.09.20

Taloaren bueltan egun osoko festa

Duela hamar urte antolatu zuten lehenbizikoz eta handia da hartu duen sona. Aurten gainera Plazaolako Mendi Maratoia ere egun berean izanen da.

Irailaren 19an. Pelle Ttikiren alde, 'Txo, mik mak txikia' ikuskizuna eskainiko dute frontoian 17:00etan. Xehetasunak 21. orrian.

IRURITA

Poesia erreztaldia

Irailaren 18an. Mikel Antzaren, 'Ametsak ere zain' poema liburuan oinarritutako emanaldia Jauregiarte tabernan 19:30etik aitzinera

Lehiaketak

ELIZONDO

XXVIII. Behi-azienda piriniotarraren lehiaketa-enkante nazionala

Irailaren 27 eta 28an. Xehetasunak 31. orrian

BERA

Aire zabaleko pintura lehiaketa

Irailaren 20an. Gure Txokoak antolatuta, 16 urtetik goitiko edonork har dezake parte.

Ospakizunak

LEITZA

Talo eguna

Irailaren 20an. Egitaraua 30. orrian.

BERA

Dantzari Txiki Eguna

Irailaren 26an. Gure txokoak antolatuta. Xehetasunak 17. orrian.

ETXALAR-SARA

Usategietako besta

Irailaren 27an. Xehetasunak 19. orrian

BERA

Mintzodromoa

Irailaren 18an. 18:30ean hasita, Xehetasunak 16. orrian.

Hitzaldiak

ELIZONDO

'Oñati: hamarkada bat bizikleta mugikortasuna eta oinez ibiltzea bulkatzen'

Irailaren 17an Daniel Enparantza oñatiarra hizlari 19:30ean Arizkunenean. Bizikleta mugikortasuna bulkatzeko ekintzen baitan.

DONEZTEBE

'La Sima' liburuaz

Irailaren 22an Jose Mari Esparzak, liburua-aren idazleak, hitzaldia eskainiko du. 17:00etan zinean.

ELIZONDO

Beltzean mintzo

Irailaren 23an Maddi Iñarra eta Txema Abaretegi izanen dira hizlari 19:00etatik aurrera, Arizkunenean.

ETXALAR

Sendabelarrei buruz

Irailaren 24an Larraburuan 16:00etatik aitzinera eskainiko du hitzaldia Kristiñek. Intereza duen oro hurbildu liteke. Bukaeran kanpora aterako dira belar bila.

LEITZA

Konpostari buruz

Irailaren 24an 18:30ean udaletxean. Mendialdeko Mankomunitateak antolatuta.

IRURITA

'Natura: contemplar, comprender, conservar'

Irailaren 24an Joaquin Araujoren eskutik, 18:00etan Jauregian.

Jardunaldiak

IRURITA

Hegaztien jardunaldiak

Irailaren 26 eta 27an eta urriaren 2tik 4ra.

Jauregian eginen dituzte ekitaldiak: Poesia emanaldi, hitzaldi eta liburu aurkezpenak. Xehetasunak 33. orrian.

Tailerrak

LESAKA

Bizikleta moldaketa II

Irailaren 25ean Harriondoan, 18:00etan. Bidazik antolatuta, bazkideek 2 euro eta bazkide ez direnek 4 euro ordainduta.

Ate-irekiak

BERA

Bidaziren Alkaiagako egoitzan

Irailaren 18an Bidaziren proiektua ezagutarazteko azoka berezia antolatu dute. (18:00etan informazioa gazteleraz eta 19:00etan euskaraz emanen dute).

Ikuskizunak

ARANTZA

Pirritx Porrotx eta Marimotx

PROPOSAMENA

IGANTZI-URROZ

Sanmigelen usainean

Herriko besten lekukoa Igantzik eta Urrozek hartuko dute, bietan sanmigelak ospatuko dira eta. Igantzin bestak ofizialki irailaren 25etik 29ra izanen diren arren, aitzineko aseturuan ere ekitaldiak izanen dituzte, besteak beste Artzain zakur txapelketa ezaguna. Urroren berriz, irailaren 25etik 29ra bazkari, bertsolari, aizkolari eta dantzariak osatuko dute egitaraua.



ITUREN

Joaldunen eguna

Irailaren 19an. Xehetasunak 25. orrian.

AMAIUR

Errotaren eguna

Irailaren 20an. Xehetasunak 34. orrian.

IRURITA

Dantzari eguna

Irailaren 26an.
12:00etan hasiko dira ekitaldiak.

ARIZKUN eta ELIZONDO

Pirinioetan dantzan mutildantza eguna

Irailaren 26an
Arizkunen, 17:00etan. Idantzarien emanaldia. Ondotik dantza irekiak.

Irailaren 27an.

Elizondon, 12:00etan dantza emanaldia eta ondotik dantza irekiak. Xehetasunak 32.orrian.

BERA

Euskal Artzainen besta

Urriaren 3an. Xehetasunak 16. orrian.

SARA

Kantarien eguna

Urriaren 4an. Sarako kantariak elkarteak antolatua. Xehetasunak 38. orrian.

Azokak

LEITZA

Stock azoka

Irailaren 19an Kaxka-beltza elkarteko hainbat komertziantek antolatuta. 10:00etatik 20:00etara


Bestak

URROZ

Sanmigelak

Irailaren 25tik 29ra. Xehetasunak 11. orrian.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK



Arbola

OLASO, XABIER

Pamiela eta Kalandraka

> **G**ainjarritako elementuak gehitzen dituen metatze-poema eta oroimenezkoa. Ageri diren eguneroko objektuak antzematea eta espazioan duten kokapena definitzen ikastea (gainean, azpian, erdian) dira liburu honetako behineko ezaugarriak; errepika du bitarteko nagusi eta betiere errima asonantearen alde egiten du. Irakurlea bera da tarteko, eta lehenengo pertsonan parte hartzen du, hitzak eta irudiak biltzen dituen elkartze dibertigarri honetan protagonista izateko.



Nola belztu behar zuria

BIDE ERTZEAN ETA METROKUADROKA

Elkar, 2015

Joxan Artzeren poesiaren mundu zabala ahots eta doinuaz jantzi nahi duen emanaldia jaso dugu DVD honetan. Joxan Artzeren *Heriotzaren ataria dugu bizitza* eta *Bizitzaren atea dukegu heriotza* (Elkar argitaletxea) poesia-liburuetako poemak oinarri hartuta sortu zuten iaz Nola belztu behar zuria emanaldia Bide Ertzean musika taldeak eta Metrokuadroka kolektiboko Oier Guillian eta Asier Sarasola deklamatzailerek.



Euskal dantzarien txokoa

DANTZAN.EUS

Dantzari edo dantzazale direnentzat atari aproposa da dantzan.eus. Gaiari buruzko Informazio eguneratua eta artxibo interesgarria biltzen dituen tresna bilakatu da, eduki historiko aunitz ere jasotzen baitira bertan. Dantzak sustatu eta zabaltea du helburu eta gainera, eduki horiek formatu desberdinetan eskuratzeko aukera izanen dute bisitariak: argazkiak, bideoak, albisteak, agendako hitzorduak... Komunitatea ere badu eta horrela, dantza talde edo zaleen arteko komunikazioa ere ahalbidetzen du.

IGANTZI

Sanmigelak

Irailaren 19 eta 20an eta 25etik 29ra. Egitarau osoa gehigarrian.

BERA

Illekuetako bestak

Irailaren 19 eta 20an. Xehetasunak 17.orrian.

DONEZTEBE

Errebestak

Irailaren 18 eta 19an. Xehetasunak 645 alean.

ORONOZ

Errebestak

Irailaren 26an. Xehetasunak 31. orrian

ETXALAR

Urritzokietako bestak

Irailaren 20 eta 21ean. Xehetasunak 19.orrian.

Kirola

LEITZA

Plazaolako maratoi erdia

Irailaren 20an. Helmuga Leitza izanen du. Xehetasunak 30.orrian.

BERA

XXXIII.BTT mendi bizikleta ibilaldiak

Irailaren 27an. Gure Txokoa Elkartek antolatuta, 10:00etan hasiko da. Xehetasunak 18.orrian.

ELIZONDO

Euskal Herrialdeen arteko kirol txapelketa

Irailaren 19an. Arratsaldeko 5etatik aitzinera jokatu da Elizondoko Laxoa plazan. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONAZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe moblezatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. ☎948 585036.

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarriak base-riak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDABUZI

- Etxe berri bat salgai, moblezatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukaldia eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459
anzabal@anzabal.com

BERA. Kantton Berri karrikan 77 m²ko pisua salgai. 2 logela, bainugela 1, egongela eta sukaldia despentsarekin. Igogailua eta buelta osoan 55.92 m²ko terrazarekin. Berritu beharra. ☎948 637359.



ELIZONDO. Akulegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezio oso ekonomikoa. ☎646 774117.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

DONEZTEBE. Karrika Nagusian etxea salgai. 2 piso independente ditu, sabaia eta lur eremua. Beheko aldean dagoen komertzioa errentan dago eta hilabetero errentabilitatea ematen du. ☎659 867414.

ETXALAR. Larrapil Sarriku karrikan etxea errentan emateko. Herriko bista zoragarriak dituen toki paregabea. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, 2 egongela, despentsa eta trasteleku handia. Oso eguzkitsua. ☎687766971/☎672153196.



ERATSUN. 2 borda salgai, bere lurrekin. Goizez deitu. ☎620 676886

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

IRUÑA. Pisua errentan eman nahi da, Paulino Caballero kalean. 3 logela ditu eta moblezatua dago. Oso argitsua. Unibertsitateetik 5 minutura. ☎647 992350.

LESAKA. 98 m²ko pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, egongela su bajuarekin, sukaldia denpentsarekin eta moblezatua. Igogailua eta buelta osoan balkoi ederrarekin. Bizitzera sartzeko prest. ☎609 445769.

LESAKA. Logelak alokatzen ditugu (aste osorako), sukaldia ibiltzeko aukerarekin. Prezio berezian zonaldean lanean ari direnentzako. Urritik aitzinera. Galde-tu konpromisorik gabe. ☎948 637862/☎678 855056.

IRUÑA. Buztintxuri auzoan 75 m²ko pisua errentan emateko. Bi logela, bi bainugela. Moblezatua. Sartzeko prest. 525 euro/hilabetean; garaje eta trastelekuarekin 575 euro. Unibertsitateara autobusa zuzenean. ☎620 700964.

BURLATA. Herriaren erdigunean, kale nagusian egin berri den parkearen ondoan, 68 m²ko pisua errentan eman nahi da. Iruñera doan Villavesaren geltokitik minutu batera. Oso argitsua, leiho guztiek kanpokaldera ematen dute. 2 logela, sukaldia, egongela, komu-



na eta trastelekuak ditu. 430€/hilabetean. ☎680129453

LESAKA. Ote karrikan pisua errentan emateko. Sukalde elektrikoa eta beheko sua, ganbara, balkoia eta bajerarekin. ☎943 633430.

ETXEBIZITZAK

konpartitzeko

IRUÑA. Etxebizitza konpartitua errentan eman nahi da. ☎649 606064.

GARAJEAK/LOKALA

salgai

LEITZA. Ileapaindegia salgai. Instalakuntza guztiekin. Udaletxeko baimenarekin. 40.000 euro. ☎629 713172.

GARAJEAK/LOKALA

errentan emateko

LESAKA. Lur azpiko bi garajea errentan eman nahi dira, Albistur karrikan bat eta Bittiria karrikan bestea. ☎618 962937.

LURRAK/ORUBEAK

salgai

DONEZTEBE. 4.000 m² inguruko partzela salgai, etxe bakarra edo bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Piztinarren gaineko aldean. Zonalde lasai, eguzkitsua eta zabal zabala. Herri-rik 3 minututara. ☎678 978656.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(abuztuaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 26 €

Zerri gizena
1,240 € kiloa.

Zerramak:
0,400 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,89
1.koa 3,66
2.koa 3,50

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,17
1.koa 3,91
2.koa 3,74

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 150,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:

urruxak 140,00
idixkoak 180,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,00/3,10
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,20/7,80
8-10 kilokoak: 6,90/7,10

LESAKA. Zanzonbaita baserriko 5.000 arboleko saila errentan eman nahi da aprobetxamendurako. Haritza, akazia eta pinua. Arbolez gain lurra landu nahi duenarentzat ere, baratza bezala, aproposa. ☎943 632864.

LURRAK/ORUBEAK
errentan hartzeko

SARAN. Errentan hartzen dira 45 antxu. Urri hondarretik maiatzaren lehena arte. ☎(0033) 652733188.

ZERBITZUAK
zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase guzietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorriibaia - ARANTZA

LANA
eskariak

LESAKA. Emakume euskaldunak haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egin nahi luke. ☎948 627534/☎679 578120.

Berako neska euskaldunak abuztuan umeak zaintzeko prest da. ☎6611 00323.

LANA
eskaintzak

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean zerbitzaria behar da. Frantses pixka bat jakitea beharrezkoa da. ☎948 599039

LESAKA. Kafetegian egiteko pertsona bat behar da. ☎619 188360.

Elektromekaniko bat behar da Baztan-Bidasoko auto tailer batean. Esperientziaduna. ☎699 454627.

LESAKA. Zerbitzari lanean aritzeko lagun euskaldun bat behar dugu, Atxaspi Ostatuan. ☎948 637536.

MOTORRAK
salgai

Yamaha R1 motoa salgai. Oso egoera onean. 1.500 euro. ☎617 216365.



Ibiza FR 1.8 Turbo kotoxea salgai. 150 zaldikoa eta 2.004 urtekoa. Egoera onean. ☎699 434008



Yamaha JOGR salgai oso egoera onean. 6.300 kilometro ditu. ☎630 676740



MOTORRAK
tailerrak

GANIX
Tallerra

☎948 63 06 69
Iturandeta, 6 BERA (NA)

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa

OPEL ZAFIRA
7 PLAZA | 5.500€

OPEL ASTRA
DIESEL | 4.900€

FORD FOCUS
FAMILIARRA | 10.900€


CITROEN C3 BERRIA
500 KM | 10.900€

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km BERA
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

ANIMALIAK
salgai

Txerri bat saltzen dut, kanpoan hazia eta etxeko janari eta barazkiekin. 90 bat kilo ditu. ☎948 637862/☎678 855056.

Sabueso arrazako txakurkumeak salgai. Aitan eta ama basurdetako ehiztari bikainak. ☎638908280.



ANIMALIAK
oparitzeko

OIZ. Arratoi zakurkumeak, 7 hilabetekoak oparitzeko. ☎655 174804-☎948 450794 (arratsalde).

Txakur bat oparitzen dut. **Labrador arrazakoa.** 5 urtekoa. ☎609 892282.

DENETARIK
salerosketak

ORONAZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramannen da. ☎676 242520.



Bizikleta eliptikoa salgai, VE710 markakoa. Hagitz egoera onean. Aldizkako edota erabilerako balio duena. ☎637466118



RENAULT **SANTESTEBAN TAILERRAK**
Lentzako errep. DONEZTIBE | T. 948 450 282 | F. 948 450 857 | doneztebe@red.renault.es

 MEGANE III TOM-TOM DCI 105 CV 69.000 km	 SANDERO AMBIANCE DCI 75 CV 2011 urtekoa - 47.600 km	 MEGANE SPORT TOURER DCI 110 CV 56.000 km
---	---	--

ETA GAINERA:

SEAT IBIZA 1.4 TD 80 CV
2008 urtekoa - 152.000 km

KANGOO EXPRESSION DCI 70 CV
2009 urtekoa - 59.500 km

KILOMETRO *U*etan prezio ezin hobek!!!

SUNBILLA. Su egurra salgai, lotean edo xehetua. ☎659 867287/ 699 461394.

Sei **altzairuzko fregadera** salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.



DENETARIK
galdu/aurkituak

BERA. Abuztuaren 3 ko gauean Conor markako mendiko bizikleta desagertu zen Beran. Kolora beltz eta gorrikoa da. Aurkitu ezker jarri gurekin kontaktuan. ☎645 006312

URDAZUBI. Zortzi urteko zakurra galdu da, txuri-beltza, erdi artzain zakurra, erdi collie. ☎627 768164.

BERRIOZARko Udala

EUSKARA TEKNIKARIEN KONTRATAZIO-ZERRENDA

Nafarroako 25 Udala eta Mankomunitatetan euskara teknikari aritzeko kontratazio-zerrenda.

Eskabideak aurkezteko azken eguna: irailaren 24a.

Deialdia: 2015eko irailaren 4ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

IRA-GAR-KIA

aldizkarian interneten

8EURO

t tipi-ttapa
Tel. 948 635 458
www.ttipi.eus

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€ Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 10 edo 20 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) erran.eus bitartez



AINERE IGUZIAGIRREK 5 urte bete ditu irailaren 10ean. Muxu handi bat etxeko eta batez ere loritzen partez.



Gazteluko **JOSEBA TELLETXEA SARRATEAK** 11 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak eta muxu handi bat zure anaia Mikel eta familia guztiaren partetik..



Narbarteko **JOEL VERDE**, etxeko morroxko tikiak, bere lehendabiziko urtea beteko du irailaren 17an. Zorionak eta muxu erraldoi bat attatto, amatto eta familia guztiaren partetik



JOELEK eta birratautxi **MIGUELEK**, gure etxeko bi saltxero hauek, urte bat eta 83 urte beteko dituzte irailaren 17 eta 19an. Mila muxu famili guztiaren partetik!!



Irailaren 25ean Etxalarko **AIERT IRIARTE BENGOTXEAK** 3 urte beteko ditu. Hiru muxu potolo Etxalarko familiaren partetik.



Zorionak Zubietako **EKHI** eta **AINHITZE** anai-arrebei, irailaren 7an 2 urte bete dituzte eta. Muxu handi bat Zubieta, Ezkurra eta Etxalarko familiaren partez, eta bereziki; Oier, Nahia, Naroa, Enaitz eta Xiker lehengusuen partez. Prestatu berendu goxoa!!!



Goizuetako **MATIN GARMENDIAK** 5 urte bete ditu irailaren 7an. Zorionak! Ongi pasa eta muxu handi bat etxekoan partez.



JOXE ANGEL OLAIZOLA ESPELOSIN zugarramurdiarrari eta lezeetako zikiro jatea prestatu zuten bertzei ere zorionak! Egun zorionsua pasa genuen. Mila esker Urdazubiko Pablo Irazoki eta Alizia Olaizolaren partetik.



Etxalarko **AMETS SANZBERRO LUJUAK** irailaren 11n urteak beteko ditu zorionak zure familiaren partez eta batez ere, zure anaia-aren partez. Muxu handi bat!



Elizondoko **EIDERREK** urtea beteko du irailaren 25ean. Muxu aunitz eta ongi pastu egune! Aita, ama eta familia guztiaren partetik.



JUNE URKIOLA MARIEZKURENA leitzarrek, gure bizipozak, 3 urte bete ditto! Besarkada eta muxu erraldoi bat izeba Birjin partez! Zorionak printzesa!!!



Gure etxeko tikiak, **ANDERREK**, abuztuaren 26an urtea bete du eta bere amatxi Juanik eta ataxi Jexusek, abuztuaren 23an eta irailaren 5ean urteak beteko dituzte. Zorionak famili guzian partetik eta bereziki Ikeren partetik. Muxu aunitz!!



Sunbillako **OIER AGUIRREK** urteak bete ditu irailaren 16an. Zorionak Sunbilla, Gerendiain eta Lekunberriko familien eta bereziki etxekoan partetik!



ANARTZ LUJANBIO NARBARTE goizuetarrak, gure motiko ausart honek, 7 urte beteko ditu irailaren 25ean. Zorionak familia guztiaren partez. Besarkada handi bat eta ongi pasa zure eguna!



Zorionak Etxalarko **XIKERRI**, irailaren 19an urte bat betetzen duelako, Zubieta eta Etxalarko familiaren partez, bereziki Ekhi eta Ainhitze lehengusuen partez. Prestatu merendu goxoa!



Lesakako **AINHIZE GARRO LASHERRASEK** 10 urte beteko ditu irailaren 17an. Zorionak etxekoan partez. Ongi pasa eguna. Muxu handi-handi bat.




Zorionak **INTZA!** Irailaren 18an 3 urte beteko dituztu! Muxu handi bat aitaxo eta amatxo-ren partez! Egun politta pasako dugu!



Berako **ANER DEL POZO RIOPEDEK** irailaren 11n 4 urte bete zituen. Zorionak familia guztiaren partez.



Igantziako **UNAX URXTEGIG** 4 urte beteko ditu irailaren 29an. Zorionak txirindulari! muxu potolo bat familia guztiaren partez eta bereziki, Iزارo, arrebaren partez!




JOEL eta **UNAX**, lehengusu bihurri pare honek urte bat eta 4 urte beteko dituzte irailaren 17 eta 29an!! Muxu handi bana Igantziako familiaren eta bereziki Iزارo, hirugarren bihurriaren partez! berendu goxo goxo bat prestatu!!




Erratzuko **HARITZ ITURBURUA JAURENAK** irailaren 14an 10 urte bete ditu. Zorionak Enaitz eta Naroa, lehengusuen eta bereziki Iker anaia-aren partez.



ENEKO IRIARTE ITURZAETAK urteak bete zituen irailaren 14an. Aunitz urtez eta muxu handi handia etxekoan partez!



IBAI LEKUONA HUICK irailaren 23an 7 urte beteko ditu. Zorionak familia guztiaren partez.



Zorionak **ARKAITZ LOIARTE OLANO**. Ongi ongi pasa eguna. Zortzi muxu potolo aitaxo, amatxo eta Ugaitzen partetik.

↑ hemen agertu nahi duzu?

argazki soila
4
EURO

argazki bikoitza
8
EURO

ALDIZKARIAN eta INTERNETEN



egin zure erosketa
erran.eus en

aek

euskara praktikoa

30 urtean, 50.000
lagunek
ikasi dute euskara
gure 100
euskaltegietan



Eman izena

Sara Coto, Aktorea, AEK-ko ikasle ohia

BAZTANGO AEK SUINKI EUSKALTEGIA

IKASI EUSKARA ORDUKO EURO 1ean!!
APRENDE EUSKERA POR 1 EURO A LA HORA!!

Maila guztiak – Ordu-tegi guztiak / Todos los niveles y horarios

Talde presentzialak - Autoikaskuntza

Grupos presenciales - Autoaprendizaje

EGA prestatzeko ikastaroa

Gurasoendako talde bereziak eskoletan

Grupos especiales para madres y padres en las escuelas

Udaleko dirulaguntzak jasotzeko aukera

Posibilidad de optar a ayudas del ayuntamiento

Jaime Urrutia 16, 2. · 948452471 · baztan@aek.eus

ttipi txartelarekin
beti irabazten da!

ttipi txartela

Miren IPARRAGIRRE HUALDE
72673111-B

epemuga 04/2016
Zk. 123456

ttipi-ttapa

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80eko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

koskontako bidea 7 LESAKA
T. 948 635 458 | F. 948 635 457
info@ttipi.eus
erran.eus

ZOZKETAK

**645. ALEKO
IRABAZLEAK:**

Kamiseta bat | ONDDO TA PUNTO
Bernardette Bertiz | IRURITA

2 sarrera | DONOSTIAKO AQUARIUMA
M^a Angeles Iribarren | URDAZUBI

5 sesioko bonoa | TOKI ONA KIROLDEGIA (Urdu S.L.)
Ainhoa Irtzoki | BERA

2 sarrera | ZUGARRAMURDIKO SORGINEN LEZEAK
Olatz Babaze | SALDIAS

Txokolate lotea | ARKUPE Gozotegia - Txokolategia
Justa Urroz | DONAMARIA

2 liburu | EREIN Argitaletxea
"Pinotxoren abenturak"

M^a Jesus Barrenetxe | LEKAROS
"Ispilu hautsia" | Laura Zabaleta | ARESO

DESKONTUAK

Olaia Bazar

LEITZA | %10, 30€tik gorako erosketetan

**ELBETEKO
POSADA**

ELBETE | %10, kartan 30€tik gora

txinelka

LESAKA | %10

POTTOKI

ELIZONDO | %5, oparitzeko
artikulu txikietan

**cenor
ALZURI**
ELEKTRIZITATEA eta ETXETRESNAK

LESAKA | %5, etxetresnetan

Amaya Picabea
CENTRO DE ESTILISMO E IMAGEN

DONEZTEBE | %5, kosmetikan
%10, oparietan 50€tik gora. Promozioan ez

KULINKO

LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan


**KAMISETA BAT
Buatxabal**
www.buatxabal.eu



Lanku



**2 PRODUKTU SORTA
Lanku**
www.lanku.com



**2 SARRERA
Lesakako Udal Kiroldegia**
www.lesakakoudalkiroldegia.weebly.com

**2 SARRERA
Irisarri Land**
www.irisarriand.com



3 LIBURU | Elkar argitaletxea
"Tira, Kamilo, espabil!" "Elefante bat hegan!" "Zure denboraren truke"
www.elkarargitaletxea.eus



AQUARIUM
DONOSTIA / SAN SEBASTIAN



**2 SARRERA
Donostiako Aquariuma**
www.aquariumss.com